

JUSTIZIA MINISTERIOA

DEIALDIA: PCI/1424/2018 Agindua, abenduaren 28koa.

ABOKATUTZAN ARITZEKO GAITASUN PROFESIONALA EBALUATZEKO PROBA. 2019KO DEIALDIA.

2019KO APIRILAREN 6A

Oharrak:

- Boligrafo beltza edo urdina baino ez erabili. **Irakurri arretaz, hasi baino lehen, erantzun-orriaren atzealdean dauden jarraibideak.**
- Ez ireki galdera-sorta esan arte.
- Galdera-sortako galdera guztiek dute balio bera.
- Galdetegia 0 puntutik 75 puntura bitarteko eskalan baloratuko da: erantzun zuzen bakoitzeko puntu bat emango da, eta 0,33 puntu deskontatuko dira erantzun oker bakoitzeko. Erantzun gabeko galderei ez zaie puntuaziorik emango. Honela aterako da guztizko kalifikazioa: zuzen erantzundakoen puntuazioari oker erantzundakoena kenduko zaio.
- Egiatzatu ezazu beti “erantzun-orriko” erantzun-zenbakia bat datorrela galdetegi honen galdera-zenbakiarekin.
- Gogoratu: 4 ordu dauzkazu proba hau egiteko.
- Gogoratu: erantzun-orrian markatu zer espezialitate juridiko aukeratu duzun.
- Galdetegi hau Justizia Ministerioarena da.
- Debekatuta dago galdetegi hau osorik edo partzialki erreproduzitzea, jatorria aipatuta ere.

ALTXATU ERTZETIK ETA EGIN TIRA

A. ABOKATUTZAN ARITZEARI BURUZKO GAI KOMUNAK

1.- Playmusic, S.L. enpresak Jaime abokatua kontratatu du kereila aurkez dezan Manuelen kontra, enpresako enplegatu ohia bera; izan ere, enpresako barne-dokumentuak eraman, eta beste enpresaburu bati eman dizkio. Kereila formulatu baino lehen, Jaimek akordio bat negoziatu du Emelinarekin –Manuelen abokatua baita– Manuelek egintzak aitortuz, dokumentuak itzuli eta Playmusic enpresari kaltea ordaindu. Isabelek idatzi du akordioa, Emelinarentzat egiten baitu lan, baina sinatzeko eguna iritsita, Manuelek ez du akordioa onartu, eta Emelinak uko egin dio Manuel ordezkatzeari. Jaimek, bere aldetik, auzitik aldendu eta bulegoko lankide Helenari laga dio, zeinak kereila aurkeztu baitu Manuelen kontra, eta ikerketa-eginbidetzat eskatu Emelinaren eta Isabelen lekuko-deklarazioa eta Manuelek sinatu behar zuen dokumentua. Irizpide deontologiko profesionalen arabera, zilegi du Helenak frogatzea horiek eskatzea?

- Bai: delitu-egintza baten ikerketaz ari gara eta Manuel ez da eta ez da inoiz izan Helenaren bezero, eta ez du harekin harremanik izan.
- Dokumentu-froga eta Isabelen lekuko-deklarazioa bai, baina ez Emelinaren deklarazioa, Manuelen letradu edo abokatua izan delako.
- Ez: hori eginez gero, sekretu profesionala gorde beharra urratuko da.
- Bai, ez baita kontrako alderdiarekin elkarriketak izan zituen letradua, Jaime auzitik aldendu baita.

2.- Estrella Miguel defendatzen ari da genero-indarkeriaren barruko tratu txarren prozedura penal batean. Estrellak badaki instrukzio-epailea, Francisco Manuel, emakumeen eskubideen defendatzaile sutsua dela, eta susmoa du ez diela jaramon handirik egingo bezeroaren argudioei. Badaki, halaber, Francisco Javier epailearen ordezkoa, Candela, indarkeria-epailea, eszeptiko samarra dela genero-indarkeria dela eta. Bere bezeroak tratamendu ekitatiboagoa izan dezan, Estrellak erreforma-errekurtsoa aurkeztu du aurretiazko eginbideak abiarazteko autoaren aurka, eta errekurtso horretan argudiatu du epaile instruktorea “ezjakina”, “zuzenbidean eskolatu gabea” eta “partziala” dela. Estrellak leporatu dizkionak ikusita, Francisco Manuelek espediente bereizi bat abiarazi du, Estrellari zehapen edo zigorren bat jar dakioken-edo. Estrellak berehala aurkeztu du errekusatzea instrukzio-epailearen aurka. Zuzena al da hori deontologiaren aldetik?

- Ez. Urratu egiten duelako organo judizialekiko harremanetan printzipio hauen arabera jokatu beharra: formak errespetatzea eta fede on prozesala.
- Bai. Abokatu baten lehen betebeharra da bezeroarekiko leialtasuna, eta defentsa-lana arretaz eta prestasunez betetzea.
- Bai. Letraduak epailearen aurka botatakoak letraduaren adierazpen askatasunaren barruan daude, eta instrukzio-epailearen jarrera ez dago justifikatuta.
- Ez. Epailea errekusatzean, bezeroaren kontrako jarrera harraraziko dio epaileari.

3.- Carmen abokatu bakar ari da elkarren adostasunez izapidetutako dibortzio-epaiketa batean. Gero, dekretua exekutatu edo betearazteko demanda zuzendu du ez-betetzaileren aurka. Zuzen jokatu al du Carmenek hasieran bezero izan zuenaren aurka? Adierazi zein den erantzun zuzena.

- Ez. Carmenek ezin du ezkontide ohietako bat defendatu bestearen kaltetan.
- Bai, baina Justizia Administrazioaren letraduak hau eskatu beharko dio exekutatuari: beste abokatu bat izenda dezala.
- Bai. Bietako edozein defenda dezake, bien izenean aritu zelako epaiketa nagusian.
- Ez. Carmenek baimena eskatu behar dio bezero izan zuenari, demanda exekutiboa haren kontra zuzentzeko.

4.- Imanolek Carmentxu defendatzeko enkargua hartu du; izan ere, prozedura laburtu batean akusatuta dute Carmentxu bere auzokide Iratxeri lesioak eragiteagatik, eztabaida izan baitzuten bizi diren etxeko atarian. Carmentxuk hau proposatu dio Imanoli: Conradak lekuko gisa deklaratu dezala, Carmentxuren laguna baita eta prest dago ziurtatzeko Carmentxuk ukitu ere egin ez zuela Iratxe. Hala ere, Carmentxuk Imanoli aitortu dionez, Conradak ez zuen liskarra ikusi, eta Carmentxuri mesede egiteko deklaratu luke. Imanolek defentsa-idazkian Conrada lekuko gisa proposatu, eta Conradak deklaratu gero Carmentxuk esan dionaren ildotik, erantzukizun penalaren pean eror daiteke Imanol?

- Bai. Delitua egin dezake, eta legeak lekukotza faltsuaren egileentzat ezarritako zigorren pean erori, letradu izatearen astungarriarekin.
- Ez. Lekukoak bakarrik egingo luke delitua, deklaratzeko duenaren ekintza pertsonala delako.
- Bai, baina kasu honetan bakarrik: epaileak, azkenean, Conradaren lekukotza kontuan hartzen badu epaia ematerakoan.
- Ez, Carmentxuren ekimena izan delako. Hala ere, diziplina-erantzukizuna izan dezake Imanolek Abokatuaren Elkargoaren aurrean.

5.- Andreak gainditu egin ditu abokatutzara iristeko masterra eta abokatutzarako gaitasun profesionalaren proba, eta abokatu jardun nahi du bulego batean, baina auzitegietara joan gabe. Horrenbestez, abokatu-elkargoetako kide ez izatea erabaki du. Posible al da hori?

- a) Ez, abokatutzan jarduteko, nahitaezkoa da abokatu-elkargo bateko kide izatea, salbu eta legeak edo Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrek espresuki hala adierazitako kasu jakinetan.
- b) Ez. Dena den, "ez diharduen elkargokide" izendapenarekin izan daiteke abokatu-elkargoetako kide.
- c) Bai. Abokatu-elkargoetako kide izatea kasu honetan bakarrik delako nahitaezkoa: edozein auzitegiren aurrean aritu nahi izanez gero.
- d) Bai. Abokatu-elkargoetako kide izatea borondatezkoa da.

6.- Juan Fernández Galindo Carmeloren bulegora joan da eta azaldu dio higiezin bat erosi nahi duela Costa del Solen. Halako batean, Carmeloren galderei zehaztugabetasunez erantzuten ari zaiela konturatuta, Juanek Carmelori aitortu dio benetako eroslea Errusiako herritar bat dela, zeinaren izena baino ez baitu ezagutzen, Anatoly. Juanek salerosketa-kontratuak sinatzeko konpromisoa hartu du, bai eta higiezina erosteko ordainketak egitekoa ere, Anatoly inongo dokumentutan ez agertzeko baldintzaren pean. Carmelok galdetzen dio bere buruari ea egoera horretan Juani aholkuak ematen jarraitu ahal duen:

- a) Ez. Kapitalak zuritzeari buruzko legeriaren arabera, Carmelok beharrezko den informazio guztia eskatu behar du, zehatz-mehatz jakiteko noren kontura ari den Juan.
- b) Bai. Izan ere, Juan prest dago alderdi kontratatzaile gisa agertzeko, eta Carmelok ez du zerikusirik Juanek Anatoly delakoarekin hitzartu dituen betebeharretan.
- c) Ez. Kapitalak zuritzeari buruzko legeriaren arabera, abokatuak debekatuta dute aholkulari aritzea bezeroen konturako eragiketetan, eragiketak ondasun higiezinaren salerosketei buruzkoak badira.
- d) Bai. Abokatuak ez daude kapitalak zuritzeari buruzko legeriaren mende, sekretu profesionalerako eskubideak babesten dituelako.

7.- Antonio abokatuak da eta bitartekari dihardu higiezin baten salerosketan. María Fernandak, Antonioren bezeroa baita, 5.000 euroko eramaile-txekea entregatu dio Antoniok, egun jakin batean ager dadin Antonio, María Fernandaren izenean, 5.000 euro ordaintzera, erresak direla eta (arras). Antoniok bere bulegoko fakturazio orokorraren kontuan ingresatu du txekea, eta bezeroen gordailuetarako duen koaderno baten apuntatu du kontzeptua. Zuzen jokatu al du Antoniok?

- a) Bai, baldin eta sinaduraren egunean erresak (arras) ordaintzen baditu.
- b) Bai, sartutako diruaren aparteko kontabilitatea daramalako.
- c) Ez. Kontu espezifiko batean gordailutu beharko luke dirua.
- d) Ez. Abokatuak ezin du bere kargura hartu bezero baten jabetzapeko funtsik.

8.- Martín oraintsu sartu da abokatuen elkargoan, eta laguntza eskatu dio Blancari, urte askoan abokatu diharduena; hain zuzen ere, aholkua eta gidaritza eskatu dizkio, zalantzak baititu kopurua erreklamatzeko prozedura zibil bat dela eta. Blancak erantzun dio sentitzen duela, baina bera ez dagoela lehia egiten dioten beste abokatu batzuei laguntzeko. Zuzen jokatu al du Blancak?

- a) Bai, abokatu batek gai edo auzi bat onartzen badu, hura defendatzen jakin behar du.
- b) Bai, abokatu esperientziadunek abokatu berriei lagunduz gero interes-gatazka sortzen delako.
- c) Ez. Antzinasun handiagoa duen abokatuak eskuzabal eta eraginkor eman behar dizkie orientazioa, gidaritza eta aholkua elkargoan sartu berriei, hala eskatzen badute.
- d) Ez. Edozein abokatuk lagundu behar dio laguntza eskatzen dion lankide bati.

9.- Patricio abokatuak bere bezero bati bidali dio Margaret abokatuarengandik jaso duen mezu elektronikoa bat, gai bat negoziatzen ari baita harekin. Zuzen jokatu al du Patriciok?

- a) Bai; betiere, komunikazio hori ez bada prozedura judizial batera ekartzen.
- b) Ez, abokatuak inoiz ezin dizkio bere bezeroari eman beste alderdiaren abokatuarengandik jasotako gutunak, komunikazioak edo oharra.
- c) Ez, abokatuak ezin dizkio bere bezeroari eman beste alderdiaren abokatuarengandik jasotako gutunak, komunikazioak edo oharra, salbu eta beste alderdiaren abokatuak espresuki baimentzen dionean.
- d) Bai; izan ere, abokatuak zilegi du bere bezeroari ematea beste alderdiaren abokatuarengandik jasotako gutunak, komunikazioak edo oharra, salbu eta beste alderdiaren abokatuak espresuki debekatzen dionean.

10.- Elvira abokatuak enkargu bat hartu du bere bezero Clararengandik: dibortzio-demanda aurkez dezala, Clararen izenean, Clararen senar Eduardoren aurka. Eduardo abokatuak da. Zer egin behar du Elvirak demanda aurkeztu baino lehen?

- a) Eduardori komunikatu behar dio, alde aurreko negoziazio bat egiteari egoki irizten badio-edo.
- b) Eduardoren Abokatuen Elkargoko dekanuari komunikatu behar dio, dekanok alde aurreko bitartekaritzari beharrezko irizten badio-edo.
- c) Alde aurretik komunikatu behar dio Eduardoren Abokatuen Elkargoko gobernu-batzarrari.
- d) Zuzenean aurkez dezake demanda.

11.- Izaskun abokatua da, eta Franciscorekin adostu du erreklamazio-demanda bat aurkeztea, lan-istripu baten ondoriozko kalte-galerak direla eta. Izaskunek enkargu-orria prestatu du, ordainsari hauek adostuta: alde batetik, 3.000 euro, hasieran, gaia aztertu eta demanda prestatzeagatik gastu finkoengatik (zenbateko hori ez da itzuliko); eta, bestetik, aldeko epaia izanez gero, ateratako zenbatekoaren % 15a, hasierako 3.000 euroak barne. Hau ere hitzartu dute: Izaskunek baimena duela, erreklamazioaren ondoriozko ordainketak jasotzeko ez ezik, funts horiek aplikatzeko ere ordainsaritzat hitzartutako zati proportzionala ordaintzera. Zilegia al da ordainsariei buruzko itun hori?

a) Ez, *cuota litis* ituna zorrotz debekatuta dagoelako.

b) Bai, baina ordainsariak aurkara (inpugnatu) ditzake bezeroak, gehiegizko iritziz gero, azken zenbatekoak Abokatuen Elkargoko baremoak gainditzen baditu.

c) Bai. Itun-askatasuna dago, eta kasu honetan ez dago arau inperatiboak urratzen dituen itunik.

d) Ez. Abusuzko ituna da, kopuru finko bat eta ehuneko edo portzentaje bat hartzen dituelako, eta Izaskuni baimena ematen diolako bere ordainsariak jaso ditzan bezeroaren interesean hartutako zenbatekoetatik.

12.- Justinok Marianoren defentsa hartu du prozedura zibil batean; hain zuzen ere, kopurua erreklamatzeko prozedura batean, zeinean Mariano demandatu baitute. Marianok, azkenean, auzia galdu eta, gainera, kontrako alderdiaren kostuak ordaintzeko kondena jaso du. Justinok ez zion aurretik planteatu Marianori zenbat joko zuten bere ordainsariak, eta minuta zehatza aurkeztu dio orain, baina Marianok ez du onartu. Justinok judizioz erreklamatu ahal du ordainsari profesionalak pagatu diezazkiotela?

a) Bai, bere jarduketaren ondoriozko ordainsariak jasotzeko eskubidea duelako.

b) Ez. Ez du alde aurretik zehatza bere ordainsarien zenbatekoa, eta auzia galdu du; beraz, ez du minuta erreklamatzeko eskubiderik.

c) Bai, baina alde aurretik eskatu behar dio Abokatuen Elkargoari minutaren zenbatekoa finka dezala.

d) Ez. Mariano kondenatu dutenez kontrako alderdiaren kostuak ordaintzera, Justinok ezin dio minutarik egin bere bezeroari.

13.- Francescak Evaristo defendatzen du prozesu penal batean, maula larriagotuaren delitua dela kausa, eta epaiketaren zain dago Probintzia Auzitegian. Prokuradoreak auto bat helarazi dio, alderdiak epaiketarako zitatzuz, ataleko presidente Manuel jaunak sinatua. Epaiketaren egunean, salara iritsi eta ikusi dute Manuel jauna ez dagoela, gaixorik baitago, eta hala adierazten diote Franciscari, hitzez. Rosa andrea da ikustaldiaren burua; ponentea, José jauna, eta hirugarren magistratua, María Fernanda andrea; guztiak ere, ataleko kideak. Ahozko ikustaldiaren ondoren, Francesca, haserre baitago auzitegiaren osaera epaiketaren aurretik ezagutzen ez zuelako, pentsatzen ari da epaiketaren deuseztasuna eskatzea, legeak aurrez ezarritako epaile arrunta izateko eskubidearen urraketatik. Aurrera egin ahal du eskari horrek?

a) Bai, inoiz ez diotelako esan, ikustaldiaren aurretik, zein den auzitegiaren osaera, ez eta zergatik esku hartu duten magistratu batzuek eta beste batzuek ez.

b) Ez. Legea bete ez bada ere, Francescak ez du auzitegiko kideetako bat ere errekusatzeko arrazoi edo motiborik.

c) Bai, presidentearen aldaketari dagokionez; izan ere, ekitaldian ez diote dokumentuz egiaztatu ataleko presidentearen gaixotasuna.

d) Ez. Legeak aurrez ezarritako epaile arrunta izateko eskubidearen urraketak ez dakar epaiketaren deuseztasuna, epaiarena baizik.

14.- Juanen ofiziozko abokatu aritu zen María ezkontza-prozesu batean, Familia Epaitegiaren 2018ko urtarrilaren 26ko epaiarekin amaitu zena. 2019ko otsailean, Juanen deia jaso du Mariak: laguntza eskatu dio, epaia betearazi edo exekutatzeko demanda bat jaso duelako, adingabeko seme-alaben zaintza eta jagoletza direla eta. Mariak laguntza eman ahal dio Juani ofiziozko letraduaren jatorrizko izendapenarekin?

a) Ez, Juanek ofiziozko abokatuaren beste izendapen bat eskatu behar du exekuziorako, lehenengo izendapena deklarazio-faserako baino ez zelako.

b) Bai. Ofiziozko txandako izendapenak esan nahi du letraduak gaiaz arduratu behar duela exekuzio-intzidenteren bat planteatzen den bakoitzean.

c) Ez. Epaia eman zenetik urtebete igaroz gero, azkendu egiten da izendapena, eta beste bat eskatu behar da.

d) Bai. Doako laguntza juridikoak barnean hartzen du exekuzioaren izapidea, instantziako epaia eman eta hurrengo bi urteen barruan gertatzen bada.

15.- Federico izendatu dute Juanaren abokatu, eta Juanak ondare-erantzukizuneko demanda bat planteatu nahi du Mataróko Udalaren aurka, lesioak jasan baititu merkatuko plazan irrist eginda. Federicok Juanaren dokumentazioa eta alegazioak aztertu, eta ondorioztat atera du Juanaren uzia sostengaezina dela. Hala adierazi dio Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari, zeinak txostena eskatu baitio Abokatuen Elkargoari. Azken horrek, ordea, sostengarri iritzi dio uziari. Ondorioz,

- a) Federicok bere gain hartu beharko du Juanak eskatzen dion laguntza juridikoa.
- b) Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak beste abokatu bat izendatuko du, zeinak ezingo baitu alegatu uziaren sostengaezintasuna.
- c) Beste txosten bat eskatuko zaio Ministerio Fiskalari. Azken txosten hori bat baldin badator elkargoaren txostenarekin, orduan bakarrik jarraitu beharko du Federicok Juanaren defentsan.
- d) Federicok bere gain hartu behar du Juanaren defentsa, baina uko egin diezaioke izendapenari, defentsarekin jarraitzea desegokia dela adierazita, arrazoi eta guzti.

16.- Joana, Pere eta Joan Francescek taldean jardun nahi dute abokatutzan, merkataritza-sozietate bat eratuta. Sozietate profesional gisa eratu behar dute?

- a) Bai, hartzen duten sozietate-forma edozein dela ere
- b) Ez, dauden merkataritza-formatatik edozeinetara bil daitezke.
- c) Bai, baldin eta lan-zuzenbideko araubidearen mendeko laguntzaile edo pasanteak kontratatuko badituzte.
- d) Ez. Abokatuak salbuetsita daude sozietate profesional gisa eratu beharretik.

17.- Joan, Pere eta Joan Francescek, azkenean, sozietate profesional bat eratzea erabaki dute, eta bertan prokuradore bat sartzea, bezeroei defentsa eta ordezkartzako zerbitzu integrala eskaini eta emateko. Egin daiteke hori?

- a) Ez, jarduera profesionalak egiteko sozietateetan ezin direlako inoiz egon beste zerbaitetan jarduten duten bazkideak.
- b) Bai, balitekeelako sozietatearen jarduera diziiplina anitzekoa izatea.
- c) Ez, abokatuaren eta prokuradorearen jarduerak betetzea legez bateraezina baita.
- d) Bai, merkataritza-legeriak ez baitu inolako mugarik ezartzen bazkideen jarduerari dagokienez.

18.- Perfectok bezero baten enkargua hartu du, Marcelorena: merkataritza-entitate baten aurka kontratuz kanpoko erantzukizunagatik erreklamazio bat abiarazteko eskatu dio. Aurkako alderdiarekin harremanetan jarri ondoren, arazoa bitartekaritzaren mende jartzea itundu dute, auzitara joatea saihesteko. Agiri bat sinatu dute horretarako, eta Perfectok bitartekaritza-eskabidea aurkezteko ardura hartu du. Hala ere, Perfecto konturatu da preskripzio-epea (urte 1) igaro daitekeela bitartekaritza ebatzi gabe, eta, beraz, zalantzan dago bitartekaritzarekin zer egin. Hau da zuzena:

- a) Demanda judiziala jartzea, preskripzio-epea eten dadin, hartara eragotzi gabe aldi berean bitartekaritza premiatzea eta prozesua eten dadin eskatzea.
- b) Bitartekaritzan atzera egitea, arazoaren ezaugarriak ikusita ez baita inoiz ebatziko preskripzio-epea igaro baino lehen.
- c) Bitartekaritzara jotzea preskripzio-epea bukatu baino lehen; izan ere, bitartekaritza-eskabidea aurkeztuta, preskripzio-epea etengo da bitartekariak jasotzen duenetik edo bitartekaritza-erakundean gordailutzen denetik.
- d) Preskripzioaren kontuaz ahaztea, arazoa bitartekaritzaren mende jartzean alderdientzako loteslea den akordioa lortuko baita.

19.- Juan Manuelek Martarengana jo du abokatu-laguntza eske; arbitraje-laudo baten jakinarazpena hartu du, baina ez dago arbitroen erabakiarekin ados. Beraz, zer errekurtsio mota balia daitekeen jakin nahi du. Informazio hau eman dio Martak:

- a) Lehen auzialdiko epaile batek arbitraje-laudoa homologatzen ez duen bitartean ez dela laudoaren edukiaz arduratu behar, homologazio-autoa da-eta errekurritu beharrekoa.
- b) Apelazio-errekurtsioa jar dezakeela laudoaren aurka, lehen auzialdiko epai bat errekurritzeko legez ezarrita dagoen epean.
- c) Deuseztatzeko akzioa egikaritu dezakeela, Prozedura Zibilaren Legean lehen auzialdiko epaiak berrikusteko adierazitako edozein arrazoiengatik.
- d) Deuseztatzeko akzioa egikaritu dezakeela arrazoi tasatuengatik, eta, gainera, laudoa berrikusteko eska dezakeela, legean epai irmoetarako ezarritakoarekin bat etorriz.

20.- Epai penal irmo batean, Juan absolbitu egin dute maula delitutik. Akusazio partikularrak baino ez zuen akusatzen. Epaian ez dago kostuen gaineko pronuntziamendu espresurik, eta dagoeneko igaro da epaia argitzeko edo zabaltzeko epea. Fernandok, Juanen abokatuak, akusazio partikularraren kostuak ezartzeko eskaera egitea pentsatu du. Posiblea da?

- a) Bai, jurisdikzio zibilaren mugaeguneratze objektiboaren irizpidea aplikatu behar delako, eta kostuak formulatutako akusazio bakarrari ezarri, haren uziak osorik ezetsi baitira.
- b) Ez, epaian ez dagoelako kostuak akusazioari ezartzeko pronuntziamendu espresurik.
- c) Bai, baina epaia exekutatzeko intzidentearen bidez izan beharko da, minuta aurkeztuta eta minuta horren aurkaratzea (inpugnazioa) planteatuta bidegabeko edo gehiegizko kostuengatik.
- d) Ez, prozesu penalean kostuak akusatuari ezartzen baitzaizkio kondena dagoenean bakarrik, edo ofizios deklaritzen dira absoluzioa dagoenean, eta ezin zaizkio ezain akusaziori ezarri.

21.- Ernesto ofiziozko txandako letradu izendatu dute Marcelo defendatzeko. Marcelo poliziaren egoitzan dago atxilotuta, ustezko sexu-erasoagatik. Ernesto Marceloren deklarazioan eta guardiako gainontzeko eginbideetan egon da, eta, gainera, doako laguntza juridikoa izapidetu dio. Hala ere, Marcelori ukatu egin zaio eskubide hori, legezko betekizunak ez betetzeagatik. Badauka Ernestok ofiziozko txandatik ordainsariren bat kobratzerik egindako lanagatik, Doako Laguntza Juridikoaren Legearekin bat etorritz?

- a) Bai, ofiziozko txandatik kobratu dezake doako laguntza juridikoa ukatu zitzaion arte; izan ere, geroraezineko eginbide batzuetarako elkargoak izendatuta egin zuen lan, baina ordutik aurrerakoagatik bezeroari pasatu behar dio minuta, edo defentsari uko egin.
- b) Bai, Ernestoren izendapena errebokatzen ez den bitartean ofiziozko letradu gisa bere ordainsariak kobratzeko eskubidea dauka, hartara eragotzi gabe administrazioak Marcelori erreklamatzeko ordaindutakoa itzul dezan.
- c) Ez, ezin du ofiziozko txandatik kobratu, baina Marcelok ordaindu egin beharko dizkio bere jardura profesionalak eragindako ordainsariak.
- d) Ez, ezin du ezein kasutan kobratu, ez baitzuen Marcelok kontratatu; izan ere, legez behartuta jardun zuen, eta administrazioak doako laguntza juridikorako eskubidea badauka baino ez du ordainduko.

22.- Clarak eskatu du aitortu dakiola doako laguntza juridikoa, eta eskumena daukan Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak aldeko ebazpena eman du. Hala ere, Clarak mesede bat egin nahi dio ilobari, Antoniori. Antonio prokuradoreen elkargoan sartu berri da, eta Clarak nahi du Antoniok ordezkatu dezan; beraz, batzordeari jakinarazi dio ofiziozko txandako abokatu baten laguntza baino ez duela behar. Posible al da hori?

- a) Ez; izan ere, eskubidea aitortzeak profesional guztiak ofiziozko txandakoak izango direla onartzea dakar.
- b) Bai; izan ere, doako laguntza juridikorako eskubidea daukan interesduna aske da erabakitzeko profesional pribatu bat nahi duen eta haren ordainsariak ordainduko dituen ala ez, harekin itundutakoaren arabera.
- c) Bai, baina Antoniok ezin izango dio inolako zenbatekorik fakturatu Clarari diziplinazko arau-hausterik egin gabe.
- d) Ez, salbu eta Antoniok bere eskubideak jasotzeari idatziz uko egiten badio Clararen aurrean eta inskribatuta dagoen elkargoaren aurrean.

23.- Majadahondako Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegian, auzi bat bideratzen ari da Franciscok jarritako demanda dela eta. Francisco txalet baten jabea da, eta Edificaciones Fernando SLUren aurka demanda jarri du eraikuntza-akatsak direla eta. Prozesuan zehar, Edificaciones Fernando SLUren ordezkartzak jakin du Majadahondako Lehen Auzialdiko 2 zenbakiko Epaitegian auzi bat bideratzen ari dela, zeinetan Promociones Majariegas SA promotoreak Francisco demandatu baitu. Promotore horrek txaletaren salerosketa kontratua suntsiarazteko eskatzen du prezio geroratu ez ordaintzeagatik. Edificaciones Fernando SLUK jakinarazi dio lehen auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegiari gorabehera hori, prozesua eten dezan. Zer erabaki hartu behar du 1 zenbakiko Epaitegiak?

- a) Autoen metaketa erabaki behar du; izan ere, 2 zenbakiko Epaitegian erabakitakoak 1 zenbakiko epaitegiko auzi-jartzailearen legitimazioari eragiten dio.
- b) Prozedura berehala eten dadila erabaki behar du, harik eta Majadahondako 2 zenbakiko Epaitegian bideratutako auzia epai irmoaren bidez ebatzi arte.
- c) Ez du prozesua eten behar; izan ere, ez da auzigaia auzi-jartzaileak demanda jartzeko daukan legitimazioa, eta ez da hori 1 zenbakiko Epaitegian bideratutako judizioan erabaki beharrekoa.
- d) Prozesua eten behar du, baina jarduketak epaia emateko prest geratzen direnean bakarrik.

24.- Pterodactilia S.A. merkataritza-sozietateak demanda jarri du Pancracioren aurka; 300.000 euroko zorra erreklamatzeko, 2011ko obra batzuetan sortutakoa. Pancraciok, demandaren erantzunean, 1995eko dokumentu bat aurkeztu du, Pedrok izenpetua. Pedro Pterodactilia S.A.ren administratzailea izan zen, eta hilda dago. Dokumentu horretan, Pedrok sozietateari dokumentatu gabeko zerbitzuak eman zizkiola onartzen da, 300.000 euroko balioa dutenak. Pterodactilia S.A.k susmoa dauka dokumentu hori faltsua dela, eta, beraz, kereila jarri du berehala instrukzioko epaitegian, eta epaile zibilaren aurrean justifikatu du kereila hori izapidetzeko onartu zela. Zer erabaki hartu beharko da jurisdikzio zibilean?

- a) Berehala eten beharko da auzia, harik eta egiaztatu arte judizio kriminala amaitu dela edo jardunbide arrunta eragozten duen zioagatik geratuta dagoela.
- b) Judizioaren izapideak jarraitu beharko dira epaia eman arte, eta une horretan auzi kriminala irekita badago, eten egin beharko da auzi kriminala ebatzi arte.
- c) Prozesu zibilaren ohiko izapideak jarraitu beharko dira; izan ere, jurisdikzio penalean hartutako erabakia erantzukizun penalari baino ez dagokio, salbu eta bi alderdiek, elkarrekin adostuta, epaitegiari hala eskatzen badiote; kasu horretan, jurisdikzio penalean hartutako erabakia loteslea izango da epaitegi zibilarentzat.
- d) Ez da beharrezkoa prozesua etetea ez beste neurririk hartzea, izan daitekeen agiri-faltsutze hori ez baita garrantzitsua auzi honen xederako.

25.- Eraikuntza arloko kontratu bat ez betetzearren bideratzen ari den prozedura zibil batean, alderdi demandatuak alegatu du, froga egin ondoren, obra-lizentzia legez kanpoko delatua eta arazo hori administrazioaren aurrean planteatuko duela eta, hala badagokio, auzibidezko demanda jarriko duela deuseztasuna deklaratu dadin, auziaren funtsezko erabakiari eragiten baitio. Alegazio horren ondoren, bi alderdiek, elkarrekin adostuta, eskatu diote auzitegiari eten dezala auziaren bidea epaia eman baino lehen, eskumena daukan administrazio publikoak edo jurisdikzio-organismoek lizentziaren legezkotasunaren arazoa ebazten duten bitartean. Posible al da alderdien jarduketara hori?

- a) Bai, eta auzitegiarentzat loteslea izango da lizentziaren gai zehatzaren gainean arlo administratiboan eskumena daukan organoak hartutako erabakia.
- b) Ez; izan ere, epaitu aurreko ondoretarako, auzitegi zibilak arduratu daitezke administrazioarekiko auzien ordenako auzitegiei esleitutako gaiez.
- c) Bai, baina auzitegi zibilak askatasuna izango du gero administrazio-bidean ebatzi dena onartzeko.
- d) Ez; izan ere, prozesua etetea edo auzitegi zibilarentzat administrazio-bidean edo auzibidean ebatzita loteslea izatea edo ez izatea ezin da egon alderdien jarduketara baten mende.

26.- Ramón eta Franciscaren txaletaren ondoko finkan, Collado Villalban, zuhaitz bat erori da, eta, ondorioz, Ramón eta Franciscaren etxean kalteak izan dira teilatuan eta horma batean. Kalte horien konponketak 85.000 euro balio du. Ez daukatenez kalte horiek estaltzen dituen etxe-asegururik, harremanetan jarri dira abokatu batekin, Raimundorekin, zuhaitza zegoen lursailaren jabeari (Jaime du izena eta Madrilen dauka egoitza) demanda jartzeko, etxebizitza konpondu edo konponketaren kopurua ordaindu dezan. Raimundok ez duenez lortzen Jaimek kasu egitea, judizioaren atariko eginbidea formulatzea erabaki du, Jaimek etxebizitzaren aseguru-kontratua erakutsi dezan, baldin badauka, eta, horrela, aseguru-etxeari ere demanda jartzeko xedez. Nork dauka eskabide hori ebazteko eskumena?

- a) Collado Villalbako epaile dekanok.
- b) Madrilgo epaile dekanok.
- c) Collado Villalbako lehen auzialdiko epaileak.
- d) Madrilgo lehen auzialdiko epaileak.

27.- Madrilgo Probintzia Auzitegiak epaia eman zuen lehen auzialdian, zeinaren bidez Endrino akusatua maula delitutik absolutu baitzuen; izan ere, egotzitako ekintzak obligazio zibilen ez-betetze hutsak zirela jo zen, maula-borondaterik gabekoak. Epaiaren aurka apelazio-errekurtsoa jarri zuen Justizia Auzitegi Gorenean Tomás fiskalak. Ondorioz, bigarren auzialdian lortu zuen apelazio-auzitegiak frogak berrikustea eta Endrinok biktimei maula egiteko asmo nabarmena zeukala ondorioztatzea. Epaiaren aurka kasazio-errekurtsoa jarri daiteke legea urratzeagatik. Inocencio abokatuak ohartarazi du lehen auzialdiko ebazpena errebokatzeak arau prozesalak eta, batez ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrina urra ditzakeela. Zer izapide jarraitu behar du, auzitegi horretara eramateko auzia?

- a) Demanda Europako Auzitegian aurkeztu baino lehen, kasazio-errekurtsoa jarri behar du eta, gero, babes-errekurtsoa Konstituzio Auzitegian, barne-errekurtsoak agortzeko xedez.
- b) Kasazio-errekurtsoa jarri behar du, baina ez da beharrezkoa babes-errekurtsoa jartzea Europako Auzitegira jo aurretik, jurisdikzio konstituzionalaz ari baikara.
- c) Ez du ez kasazio-errekurtsorik ez babes-errekurtsorik aurkeztu behar, aparteko errekurtsoak baitira.
- d) Ezin du auzia Europako Auzitegira eraman, estatuek baino ezin baitute auzitegi horretara jo, eta emandako ebazpenak barne-legeria aldatzeko beharra baino ez dakar.

28.- Casimiro atxilotu egin dute, ustez delitu hau egin duelako: gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta. Ez dagoenez atxilotetarekin ados, Casimirok "habeas corpus" eskatu du; izan ere, bere ustez modu arbitrarioan eta legez kontra atxilotu dute, ez du-eta inolako lapurreta-deliturik egin: gehienez ere, ebasketa-delitu arina, eta horrek ez du atxiloteta justifikatzen. Instrukzio-epaileak, idatzia ikusita eta, habeas corpus izapidetu gabe, ez onartzeko ebazpena eman du, askatasuna kentzeko erabakia zuzena izan zela irizten baitio. Bi egun geroago, epailearen esku geratu da Casimiro, eta aske utzi du apud acta agertzeko obligazioarekin. Casimiroren abokatuak ahalegindu da jarduketan deuseztasuna deklaratu dadin, habeas corpus prozedura ez izapidetzearren, baina instrukzio-epaileak ez du onartu. Ba al dauka Casimirok babes-errekurtsoa jartzetik habeas corpus ez onartzeko erabakia berrikusi dadin?

- a) Bai, Konstituzioaren 17.4 artikulua urratzeagatik.
- b) Ez, habeas corpus izapidetzeko ez denez onartu, ezin da inolako errekurtsorik jarri.
- c) Bai, baina askatasuna kentzea erabaki zuen prozesu judizialean behin betiko ebazpena eman ondoren bakarrik.
- d) Ez, aske geratu baita atxilotu eta bi egunera, eta, beraz, babes-errekurtsoak ez baitauka zentzurik.

29.- John Smith britainiarra da, eta Costa del Soleko herri batean dauka bizilekua. John Smith Thailandiara joan da bidaiari, eta bertan ordainpeko sexu-harremanak izan ditu herrialde horretako adin txikikoekin. Espainiara helduan, fiskaltzak, Johnen senide batek abisatuta, salaketa jarri du adin txikikoen sexu-askatasunaren aurkako ustezko delituagatik. Ba al dauka Espainiako jurisdikzioak eskumenik ikerketa horretaz arduratzeko?

- a) Ez, atzerrian gertatu delako, eta ez biktima ez egilea ez dira espainiarrak.
- b) Bai, ustezko egileak Espainian daukalako bizilekua eta delitua adin txikikoen askatasun sexualaren kontrakoa delako.
- c) Bai, Espainiako jurisdikzioa eskuduna baita espainiarrek edo atzerrian bizi direnek egindako delitu guztiez arduratzeko.
- d) Ez, egitateak egin diren tokian bakarrik pertsegitu ahal izango direlako (Thailandian), edo, bestela, Johnek nazionalitatea daukan herrialdean (Erresuma Batuan).

30.- Alacanten egoitza duten eta erkidego-marketan espezializatuta dauden Merkataritza-arloko Epaitegiek eta Probintzia Auzitegiko Salek, gai horri dagokionez, eskumena dute:

- a) Europar Batasuneko lurralde osoan.
- b) Estatuko lurralde osoan.
- c) Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren lurraldean.
- d) Alacanteko barruti judizialaren lurraldean.

31.- Kode Zibilaren 1.469. artikularekin bat etorritik, Emilianok demanda jarri zien María Luzi eta Juan Joséri, saldu zituen etxebizitzaren salerosketa-kontratua hutsaltzeko eskatuz; izan ere, higiezinak eskrituran jasotakoak baino metro karratu gutxiago zituen. Hala ere, auzia galdu zuen, epaileek ulertu zutelako salmenta ez zela egin etxebizitzaren metro karratu kopuruaren arabera, artikulua horrek eskatuko lukeen moduan. Emaitzarekin ez zenez gustura geratu, Emilianok beste abokatu batengana jo zuen, eta horrek beste demanda bat planteatu zuen, zeinaren bitartez kontratuaren deuseztasuna eskatu baitzuen, Emilianoren adostasun-akatsagatik, funtsezko akatsa egin zuelako etxebizitzaren metro karratu kopuruaren inguruan, Kode Zibilaren 1.300. artikularekin eta hurrengoekin bat etorritik. Kasu bietan, Emilianok gauza bera eskatzen jarraitzen du; hau da: alderdiek elkarri itzul diezazkietela kontratuko prestazioak. Auzitegiak aztertu al ditzake bigarren demanda horren funtsezko alegazioak?

- a) Bai, lehenengo auzia hutsalketan oinarritzen zelako, eta orain kontratuaren deuseztasunean oinarritzen delako; beraz, ez da asmo bera.
- b) Ez, demanda ondasun higiezin berari baitagokio; beraz, alderdiek horren inguruan lituzketen ekintza posible guztiak baliatu behar izan ziren.
- c) Bai; izan ere, bigarren auzian alegatutako egitateak eta oinarri juridikoak ez dira lehenengoko berberak.
- d) Ez, demandan eskatzen dena gauza bera delako, eta egitate eta oinarri berriak lehenengo auzian alegatu zitezkeen eta alegatu behar izan ziren.

32.- Mario letraduak 4.500 euroko ordainsari-minuta aurkeztu zuen Madrilgo Lehen Auzialdiko 77. Epaitegiko kostu-tasazioan. Kostuak ordaindu beharra ezarri zitzaion alderdiak aurkaratu (inpugnatu) egin zituen ordainsariak, gehiegizkotzat irizita; izan ere, iruditu zitzaion ez zutela 4.000 euroko kopurua gainditu behar. Aurkaratzearen (inpugnazioaren) berri eman zitzaionean, Mariok onartu zuen minuta 4.000 eurora murriztea, gainerakoari uko eginda, eta gertakaria artxibatzeko eskatu zuen. Alabaina, epaitegia ez zen beste idazki horretaz ohartu, eta kostuak aurkaratzeko (inpugnatzeko) gertakaria izapidetu zuen, eta horren berri eman zion Abokatuen Elkargoari, zeinak jakinarazi baitzuen minuta zuzena zela, elkargo-baremoen arabera. Beraz, ebazpen irmoa eman zuen, kostu-tasazioa berretsita, pentsatuz 4.500 euroko erreklamazioa bere horretan mantentzen zela. Bai Mariok eta bai ordaindu beharra ezarri zitzaion alderdiak eskatu dute autoa deusezta dadila, akatsa egon zelako alderdien asmoekiko, baina epaitegiak uko egin zion horri, erabaki irmoa dela adierazita. Eragindako alderdiak formulatu al dezake konstituzio-babeserako errekurtsioa?

- a) Bai, benetako babes judizialaren eskubidea urratu delako; izan ere, emandako ebazpena epaitegiaren ageriko akats batean oinarritzen da, eta horren aurka ez dago beste errekurtsorik jartzerik.
- b) Ez, ebazpena irmoa delako eta babes-errekurtsioa eskaintzen duen zuzenbide konstituzionalik ez dagoelako konprometituta.
- c) Bai, Konstituzio Auzitegia baita edozein ebazpen judizial irmo berrikusteko azken instantzia, edozein dela ere ebazpenaren edukia.
- d) Ez; zeren, kostu-tasazioaren arloan, inoiz ezin baita babes-errekurtsorik jarri.

33.- Gentesana S.A.ren Administrazio Kontseilua mediku-aseguru pribatuan aritzen da, eta erabaki du bere administratzaile bakarrari, Enrique jaunari, % 2ko ordainsaria ematea zorro-komisio gisa, asegurdunen urteko kuota guztiengatik. Egia esan, Enrique jauna sekula ez da aseguru-agentea izan, eta Administrazio Kontseiluaren asmo bakarra konpentsazio bat ematea zen, sozietatearen kudeaketan izan duen dedikazioagatik. Zenbait urte geroago, akziodun minoritario bat agertu da, eta planteatu du aipatutako akordioak Kapital Sozietateei buruzko Legearen 24. eta 218. artikulua urratzen dituela. Hain zuzen ere, artikulua horiek diote administratzailearen ordainsaria estatutueta finkatuta egongo dela, eta, ordainsaria irabazien gaineko partizipazio batean oinarritzen bada, mozkin likidoetatik baino ez dela kenduko, legez eta estatutuz ezarritako erreserbei dagozkien betebeharrak bete ondoren eta akziodunei gutxieneko dibidendua onartu ondoren. Alabaina, Administrazio Kontseilua eskaera hori ezetsi du eta uko egin dio erabakia berrikusteari, argudiatuta administratzailearekin egindako kontratu edo kuasikontratu bati dagokiola. Akziodun minoritarioak zalantza jar al dezake judizialki itun hori?

- a) Ez; izan ere, administratzailearen eta sozietatearen artean modu baliodunean egindako kontratua da: baldintza guztiak betetzen dira alderdien adostasuna baliozkoa izan dadin, eta ez dagozkie zuzenean sozietatearen irabaziei.
- b) Bai; izan ere, bazkide berriek edozein unetan aurkaratu (inpugnatu) ditzakete akordio sozialak, sozietatean sartzen diren unetik eta inolako eperen menpe egon gabe.
- c) Ez; izan ere, akordioa deuseztagarria da, besterik gabe, eta ekintzaren urtebeteko iraungipen-epea igaro da.
- d) Bai; izan ere, akordioak lege-iruzurra eratu dezake administratzaileen ordainsariei buruzko aginduzko arauak saihesteko orduan; beraz, deuseztasun erradikala eska daiteke.

34.- Vilanova i la Geltrúko (Bartzelona) Lehen Auzialdiko 5. Epaitegian, prozedura judizial bat dago abian, Francescek Montserratren eta ASEGURA aseguru-konpainiaren aurka jarritako erreklamazioagatik, Francesc eta Montserrat inplikatur egondako ustezko trafikoz-istripu baten ondorioz. Aldi berean, lesioen parte bat heldu da Vilanova i la Geltrúko 1. Instrukzio Epaitegira, eta jarduketa penal batzuk abiarazi dira, zeintzuetan Mossos d'Esquadra-ko kideek ondorioztatu baitute istripua simulazio hutsa izan zela, ASEGURA aseguru-konpainiari iruzur egiteko. Gertakari hori Francescek eta Montserratek egindako ustezko maula izan liteke, eta inputatu egin dituzte. Francescen abokatuak, gertatutakoaren berri izaterakoan, Lehen Auzialdiko epaileari eskatu dio eskumen-gatazka planteatzeko jurisdikzio-ordena penalarrekin. Planteatu al daiteke gatazka hori? Zein organoren aurrean?

- a) Bai, planteatu daiteke, eta Bartzelonako Probintzia Auzitegiak ebatziko du, bi epaitegien gainetik dagoen organo komuna baita.
- b) Ez, epaile zibilek ezin diotelako eskumen arloko auzirik planteatu ordena penalarri.
- c) Bai, planteatu daiteke, eta Auzitegi Goreneko sala berezi batek ebatziko du.
- d) Ez, ez baita posible eskumen-gatazka piztea jurisdikzio-ordena desberdinetako organo judizialen artean, baizik eta, soil-soilik, auzi prejudizialak.

35.- Inések eta Álvaro zuzenbide penalean espezializatutako abokatu-bulego bat daramate. Bulego horretan, administrari batek eta pasante batek ematen dituzte zerbitzuak. Bulegoarekin harremana duten bezeroen datuak erabiltzen dituztenez, ordezkari bat izendatu behar al dute datuak babesteko?

- a) Ez; izan ere, ez dituzte datuak eskala handian erabiltzen, eta ez daude ordezkaria izendatzeko legezko betebeharreko kasuen artean, baina borondatez egin dezakete.
- b) Bai; izan ere, ordezkari bat izendatu behar dute, datu pertsonalak erabiltzen dituzten guztietan.
- c) Ez; izan ere, abokatuen bulego bat ez dago datuen babesari buruzko legeriaren obligazioen menpe, baizik eta konfidentzialtasunaren inguruko betebeharrak deontologiko eta legalen menpe.
- d) Bai; izan ere, pertsona horrek arduratu behar du datuen tratamenduen inguruko neurri tekniko eta antolakuntza-neurri egokiez, eta bi abokatuetakoz edozein edo administraria izan daiteke pertsona hori.

36.- Bermúdez&Pérez bulegoak 300 abokatu ditu Espainia osoan, eta bere bezero eta hornitzaileen datuen tratamenduak egiten ditu. Zer betebeharrak dituzte tratamendu horiei buruz?

- a) Bi urteko antzintasuna baino gehiago duten datu guztiak ezabatu behar ditu.
- b) Datu horiek jasotzen dituzten fitxategiak inskribatzea Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan.
- c) Egindako tratamendua bere Abokatuen Elkargoari komunikatzea.
- d) Tratamendu Jarduketan Erregistro bat prestatu, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren esku jartzea.

37.- Juan Carlos abokatua Manuel defendatzen ari da arrazoi ekonomikoengatik auzi penal batean, baina Juan Carlosek uko egin dio Manuel defendatzen jarraitzeari, Manuelek ez diolako ordaindu eskatutako funts-hornidura. Manuelek zure bulegora jo du, eta gai horren defentsarekin jarraitzeko enkargua eman dizu. Zer egin beharko duzue?

- a) Baimen profesionala (*venia*) eskatu Juan Carlosi lehenengo jarduketa baino lehen. Juan Carlosek ezingo du ezetz esan.
- b) Prozeduran pertsonatu zaitezke Manuelek izenean.
- c) Nahitaez sinatu behar dira enkargu-orka eta ordainsarien aurrekontua edozein jarduketari ekin baino lehen.
- d) Juan Carlosi komunikatu Manuelek egindako enkargua, lehenengo jarduketa egin baino lehen komunikatu ere.

38.- Abokatu-bulego batek Isabel kontratatu du 1331/2006 Errege Dekretuaren erregimenaren pean, abokatuaren jarduera profesionala abokatu-bulegoetan emateari buruzkoa baita arau hori. Isabelen kontratuak badu iraupen-itun bat, bi urterako, eta, bulegoarekin harremana izan duen bitartean, prestakuntza espezializatua eman diote bulego horretan. Hamaika hilabeteren buruan, Isabelek adierazi du bulegotik alde egiteko asmoa duela. Bulegoak behartu al dezake Isabel bere lanpostuan egotera itundutako bi urteak bete arte?

- a) Ez, baina bulegoak eskubidea izango du kalte-galerak ordain diezazkiten, hitzarmen kolektiboan edo lan-kontratuan ezarritakoaren arabera.
- b) Ez, baina bulegoak eskubidea izango du kalte-galerak ordain diezazkiten, hitzarmen kolektiboan edo lan-kontratuan ezarritakoaren arabera. Ordainketa hori, dena den, inoiz ez da handiagoa izango bulegoak prestakuntza edo espezializazioaren ondorioz izan dituen gastuak baino.
- c) Bai, baina Isabelek lanaldi-murrizketarako eskubidea izango du, hitzarmen kolektiboan edo lan-kontratuan ezarritakoaren arabera.
- d) Ez, baina bulegoak eska diezaioke enkargatu dizkiten gaiak amaitu ditzala.

39.- Miguel abokatuaren kontrako prozedura penal bat izapidetzen ari dira, ustez bezero baten funtsez bidegabe jabetu delako. Nola jokatu behar du egintzak burutu ziren tokiko Abokatuen Elkargoak egintzen berri izatean?

- a) Ez da jarduketarik egin behar egintza berberengatik prozedura penala amaitu arte.
- b) Abokatuen Elkargoak zehapen-prozedura bat abiaraz dezake egintza horiengatik, eta prozedura horren izapidetzea eten harik eta prozedura penala amaitzen den arte.
- c) Abokatuen Elkargoak ezingo du inongo jarduketarik egin, *non bis idem* printzipioa dela eta.
- d) Abokatuen Elkargoak nahitaez abiarazi beharko du zehapen-prozedura, eta prozedura horren izapidetzea eten beharko du harik eta agintaritzaren pronuntziamentu irmoa izan arte.

40.- Carlos abokatuak da, eta prozesu penal batean dihardu, akusazio gisa, bere bezero Marcosen izenean, eta 3 urteko espetxe-zigorra lortu du Estebanentzat. Behin epaia irmo bihurtuta, Esteban espetxean dagoela kondena betetzen, Carlosek jakin du erabilitako frogetako bat, Esteban kondentatzeko funtsezkoena, faltsua dela; hain zuzen ere, bere bezero Marcosek egindako faltsutze baten ondoriozkoa. Nola jokatu behar du Carlosek?

- a) Estebanen abokatuari eman behar dio faltsutze horren berri, berrikuspen-errekurtsoa aurkez dezan.
- b) Zirkunstantzia horren berri eman behar du, bidezko diren ondorioetarako, egoera larria da eta.
- c) Ez du ezer esan behar jakin duen horri buruz, sekretu profesionalaren mende dago eta.
- d) Kontrako abokatuari komunikatu behar dio, baina, alde zuzenetik, Marcos bezeroari abisatu behar dio komunikazio horrek zer ondorio dituen.

41.- Amanda abokatuak lankidetzan dihardu Alejandro abokatuarekin hainbat gai judizial izapidetzen, eta itundu dute nola banatu ordainsariak: % 75 lehenengoarentzat eta % 25 bigarrenarentzat. Zuzena al da akordio hori?

- a) Jarduketa hori ez da zuzena, kalte egiten baitio abokatu bati.
- b) Jarduketa hori ez da zuzena; izan ere, abokatuak ezin dio inongo konpentsaziorik ordaindu beste pertsona bati bezero bat bidaltzeagatik.
- c) Jarduketa hori zuzena izango da, baldin eta bezeroak ezagutzen badu ordainsarien banaketa hori, eta espresuki onartzen badu.
- d) Akordioa zuzena da, lankidetzaren profesionala dagoelako.

42.- Isabel Martaren bezeroa da, eta Martari agindu dio bere interesak defenda ditzala senarrak, Davidek, banatzeko hasi dion prozedura judizialean. Isabelek susmoa du bere letratu Martak ez ote dituen adiskide-harremanak Daviden abokatuarekin, eta halaxe azaldu dio Martari. Zer egin behar du Martak?

- a) Martak betebeharra du Isabeli jakinarazteko eskusiboki ahoz, nahiz eta Isabelek idatziz eskatu, zeintzuk diren bere independentziari eragin diezaioketen egoera guztiak; esaterako, kontrako alderdiarekin edo haren ordezkariarekin dituen familia-harremanak, adiskidetasunezkoak, harreman ekonomikoak edo finantzarioak.
- b) Martak ez du betebeharririk Isabeli jakinarazteko bere independentziari eragin diezaioketen inongo egoerarik; esaterako, kontrako alderdiarekin edo haren ordezkariarekin dituen familia-harremanak, adiskidetasunezkoak, harreman ekonomikoak edo finantzarioak.
- c) Martak betebeharra du Isabeli jakinarazteko eskusiboki ahoz, nahiz eta Isabelek idatziz eskatu, zeintzuk diren bere independentziari eragin diezaioketen egoera guztiak, baina ez kontrako alderdiarekin edo haren ordezkariarekin dituen familia-harremanak, adiskidetasunezkoak, harreman ekonomikoak edo finantzarioak.
- d) Martak betebeharra du Isabeli jakinarazteko, baita idatziz ere Isabelek horrela eskatuz gero, zeintzuk diren bere independentziari eragin diezaioketen egoera guztiak; esaterako, kontrako alderdiarekin edo haren ordezkariarekin dituen familia-harremanak, adiskidetasunezkoak, harreman ekonomikoak edo finantzarioak.

43.- Andrea eta Luis dibortziatuta daude. Andrea Frantziara joan zen bizitzera; beraz, Luisen kargura geratu zen seme-alaba adingabekoen zaintza, baina guraso-ahal partekatua mantenduta. Hilabete batzuk igaro eta gero, Luis bere abokatu Anaren bulegora doa, eta jakinarazten dio bolada ekonomiko txarra pasatzen ari dela ez duelako diru-sarrerarik, eta Aldundiaren aldi bateko zaintza eskatu duela adingabeentzat, laguntzarik gabe gera ez daitezela. Luisek Anari eskatzen dio ez emateko egoera horren berri emazte ohiaren abokatuari. Anak adierazten dio amak jakin beharko lukeela egoera hori, baina errespetatzen du Luisen eskaera. Zuzena izan da haren jarduketara?

- a) Ez. Guraso-ahala partekatua dute, eta, ondorioz, halako egoera aita-ama biek ezagutu eta adostu beharko lukete.
- b) Bai. Abokatuak sekretu profesionala gordetzeko betebeharra du.
- c) Ez. Sekretu profesionala gordetzeko eginbeharra ez da mugagabea eta absolutua, eta lehentasuna izan behar zaie hala adingabekoen interesei nola zaintzarik gabeko ezkontideak egoera ezagutzeko duen eskubideari.
- d) Bai. Luisen abokatuak bakarrik defendatu behar ditu bere bezeroaren interesak

44.- Martak bi demandatu defendatzen ditu erantzukizun zibileko prozedura batean, eta haietako batek dio bestearena dela erantzukizuna. Zer egin behar du Martak?

- a) Beti uko egin beharko lioke bezero biak dendatzeari.
- b) Uko egin beharko lioke bezero bien defentsari, salbu eta biek ematen badiote baimen espresua bietako baten defentsan parte hartzeko.
- c) Uko egin beharko lioke bietako baten defentsari, hain zuzen ere uko egin behar lioke defendatzeko eskatu zion azkenarenari.
- d) Aurrera segitu behar luke prozedurarekin harik eta epaia eman arte, bezeroetako bati ere ez eragiteko defentsa-gabezia.

45.- Maite Sandroren ohiko bezeroa da, zeren konfiantzazko abokatua du, eta urteetan eta urteetan lan egin du berarekin. Oraintsu, Maitek Sandrori eskatu dio beste gai batez arduratzeko baina aurretik enkargu-orri bat sinatzeko, seguru jakin nahi duelako zenbatekoak diren ordainsariak eta zelan ordaindu behar dituen. Zelan jokatu beharko du Sandrok enkargu-orri hori eskatzen diotenean?

- a) Ezetz esan behar du, zeren horrek mesfidantza dakar, eta hori desegokia da abokatuaren eta bezeroaren arteko harremanetan.
- b) Enkargu-orria sinatu behar du, bezeroak eskatzen diolako.
- c) Sinatu behar du, zeren abokatuen betebeharra da enkargu-orria sinatzea kasu guztietan, nahiz eta Maitek eskatu izan ez.
- d) Ezetz esan behar du, zeren, horretarako, kostuak tasatzeko irizpide orientagarriak daude.

46.- Juan letradua da, Leóngo, eta bulego profesional indibidual baten titularra; bulego horretan, Aitorrek dihardu lankidetzan, lan-harremanarekin. Aitor ere abokatu elkargokidea da eta diharduen elkargokidea. Aitor Juanekin lankidetzan ari den auzigaietako batean, kalte bat sortzen zaio bezeroari, Aitorrek berak egindako kudeaketa bategatik eskusiboki.

- a) Juanek, bulego profesional indibidual baten titular den aldetik, profesionalki erantzungo du bere bezeroaren aurrean Aitorrek egindako kudeaketa edo jarduketarengatik, bere lankidea baita, hargatik eragotzi gabe Aitorren aurka duen berreskaera-eskubidea, hura bidezkoa den kasurako.
- b) Juanek inoiz ez du erantzungo profesionalki bere bezeroaren aurrean Aitorrek egindako kudeaketa edo jarduketengatik.
- c) Juanek, bulego profesional indibidual baten titular den aldetik, profesionalki erantzungo du bere bezeroaren aurrean, Aitorrek egindako kudeaketa edo jarduketarengatik, bere lankidea baita, baina bakarrik kudeaketa edo jarduketa horiek delitua eratzen badute.
- d) Juanek, bulego profesional indibidual baten titular den aldetik, profesionalki erantzungo du bere bezeroaren aurrean Aitorrek egindako kudeaketa edo jarduketarengatik, bere lankidea baita, baina bakarrik hala ezartzen badu espresuki abokatuen elkargoko batzarrak.

47.- Asierrek Zuzenbideko gradua du; 2017an, abokatutzara iristeko masterra gainditu zuen eta abokatutzara iristeko Justizia Ministerioak deitutako estatu-proba gainditu, baina oraindik ez da sartu inongo abokatu-elkargotan. Oraintsu, emaztearen dibortzio-demanda jaso du, eta pentsatzen ari da bere burua defendatu nahi duela. Bere burua defenda dezake abokatuen elkargo batean kidetuta egon ez arren?

- a) Ez. Edozein epaitegitan jarduteko, abokatuen elkargoren baten kidetuta egon behar du ezinbestez.
- b) Bai. Abokatuen elkargo bateko kide izateko betekizun guztiak betez gero, ez du kidetuta egon behar bere auzigai propioak defendatzeko, baina gaikuntza eskatu behar dio Abokatuen Elkargoko dekanuari horretan aritzeko.
- c) Bai, zeren, dibortzio-prozeduretan, Zuzenbideko edozein lizentziatuk edo gradudunek jardun dezake, baldin eta alderdi bada, nahiz eta ez egon elkargo batean kidetuta.
- d) Bai. Izan ere, gaindituta dauka abokatutzara iristeko masterra eta gaindituta dauka Justizia Ministerioak deitutako estatu-proba.

48.- Felipek profesionalki jardun nahi du abokatutzan, eta alta ematen du Abokatuen Sevillako Elkargoan. Abokatutzan jardun ahal du bulego profesionala Vigon badauka?

- a) Bai. Askatasuna dago elkargoa hautatzeko.
- b) Bai. Egoitza bakarrik da garrantzitsua ondore fiskaletarako.
- c) Bai. Bulego profesionala elkargoaren lurraldean ez badago, horrek bakarrik eragotziko dio elkargo horretako ofiziozko txandara sartzea.
- d) Ez. Betebeharra du egoitza profesional bakar edo nagusiari dagokion elkargora sartzeko.

49.- Izaskun abokatu da, eta bere gain hartzen du Olgaren interesak defendatzea Palacios Gómez, SL enpresak haren kontra jarri duen kaleratze-prozedura batean. Izaskunek Palacios Gómez SL enpresa defendatu zuen iraganean, duela lau urte, beste enplegatu batek jarritako demandaren ondorioz izandako epaiketa batean. Orduan, enpresaren barruko dokumentazioa lortu zuen, eta dokumentazio horretatik ondorioztatzen zen kontratu-anomaliak zeudela enpresak beste enplegatu batzuekin zituen harremanetan. Olgak eskatzen dio Izaskuni aurkez dezala dokumentazio hori, demandarekin batera. Zer egin behar du Izaskunek?

- a) Dokumentua aurkeztu behar du; izan ere, bezeroari zerbitzuak emateari utzi, eta hiru urtean baino ez da zaindu behar sekretu profesionalaren eginbeharra.
- b) Dokumentua aurkeztu behar du; izan ere, orain duen bezeroak, Olgak, eskatzea nahikoa da sekretu profesionalaren eginbeharra betetzetik desenkusatzeko.
- c) Ez du aurkeztu behar dokumentua; izan ere, ez dira amaitu bezeroari zerbitzuak emateari utzi eta zaindu beharreko bost urteak.
- d) Ez du aurkeztu behar dokumentua; izan ere, sekretu-eginbeharrak ez du mugarik denboran.

50.- Lucasek abokatu-bulego bat du. Bertan, Carlak eta Robertok abokatu lan egiten dute, lan-kontratua sinatu ostean. Carlak ez daki zehatz ea zenbateraino bete behar duen Lucasek esaten diona zerbitzu profesionalak emateko moduari buruz; hori dela eta, bere lankide Robertori galdetzen dio horri buruz. Robertok honen berri ematen dio:

- a) Lucasen esanak bete behar ditu: bien artean interes-gatazka balego ere, haren esanak bete beharko lituzke.
- b) Ez ditu bete behar Lucasen esanak; izan ere, hark bakarrik egiaztatuko du lan-betebeharrak betetzen dituela.
- c) Lucasen esanak bete behar ditu, salbu eta Lucasen esanek urratzen badituzte abokatutzako printzipio eta balioak edota ogibidea zuzentzen duten arauak abokatuak ezartzen dizkieten betebeharrak.
- d) Lucasen esanak bete behar ditu; izan ere, bera da bulegoaren titularrak, eta, ondorioz, salbuetsita dago bere jardun profesionalaren ondoriozko diziplina-erantzukizuna betetzetik.

Erreserbako galderak

1.- Carla Italiako abokatu da, eta sartuta dago Florentziako Abokatuen Ordenan. Sergio haren ohiko bezeroa da, eta Espainiako kartzela batean dago, droga-trafikoko gai bat dela eta. Sergiok Carlari deitu dio; bere egoera azaldu, eta eskatu dio defenda dezala Espainiako auzitegietan. Zer betekizun bete behar ditu Carlak Sergio Espainian defendatzeko?

- a) Florentziako Abokatuen Ordenako elkargokide-txartela aurkeztu behar du Sergioren defentsan diharduenean, edozein auzialditan.
- b) Carlak lurralde-gaikuntza eskatu behar du jardun ahal izateko, organo judizial eskudunak dauden lurralde-eremuan.
- c) Carlak lankidetzan jardun behar du Espainiako abokatuen elkargoren baten kide tutako abokatu batekin.
- d) Carlak baimena eskatu behar dio Espainiako Abokatutzako Kontseilu Nagusiari.

2.- África abokatu da, eta bere lankide Pedrorekin negoziatzen ari da merkataritza-kontratu bat betetzeko bien bezeroen artean eta, zehazki, 1.200 euro ordaintzeko. Negoziazioak luzatzen dira, ahaleginak eginez epaiketara ez jotzeko, baina Áfricak susmoa dauka lankidearen asmoa ez dela besterik kontua atzeratzea baino. Erreklamazio-akzioa egikaritzeko aukerak laster preskribatuko du; beraz, Áfricaren bezeroak agintzen dio demanda jartzeko, eta berak hori egiten du, Pedrori aurretik abisatu gabe. Zuzen jokatu du Áfricak?

- a) Bai. Bezeroaren esanak betetzen ari da.
- b) Bai, zeren laster preskriba dezake akzioak.
- c) Ez. Negoziazioak eten direla jakinarazi behar dio kontrako letraduari, demanda jarri baino lehenago.
- d) Ez. Kasu honetan, letraduaren esku-hartzea ez da nahitaezkoa, eta demanda bezeroak aurkezten du, bere izenean.

3.- Agustí Sevillan bizi da; hitzezko judizioko demanda jarri du, Madrilen, 1.900 euro erreklamatzeko, eta abokatua eta prokuradorea erabili ditu erreklamazio hori aurkeztu eta defendatzeko. Prozeduran eman den epaiak osorik baiesten du erreklamazioa, eta kostuak ordaintzeko kondena espresua ezartzen. Agustík erreklama ditzake bere abokatuak eta prokuradoreak sortutako kostuak?

- a) Ez, zeren 2.000 eurotik beherako hitzezko judizioko prozeduretan ez da nahitaezkoa abokatuak eta prokuradoreak esku hartzea.
- b) Ez, letraduaren kostuak baino ezin ditu erreklamatu.
- c) Bai, zeren abokatu eta prokuradorearekin aurkeztu zuen demanda.
- d) Bai, zeren toki desberdinetan daude Agustíren egoitza (Sevilla) eta demanda aurkeztu den tokia (Madril).

4.- Salerosketa-kontratu batean, alderdi biek espresuki ezartzen dute klausula bat, zeinaren arabera, itundutako betebeharrak bete ezean, arau-hausleari ezarriko baitzaizkio auziko judizioko kostuak. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Klausula horretan ezarritakoaren arabera, zeinak auzitegia lotzen baitu, kostuak ordaintzeko kondena ezarriko zaio beti alderdi ez-betetzailerari.
- b) Auzitan ausarkeriaz diharduen alderdiari bakarrik ezarriko zaio kostuak ordaintzeko kondena, eta klausula hori ez da loteslea auzitegiarentzat.
- c) Fede gaiztoz diharduen alderdiari bakarrik ezarriko zaio kostuak ordaintzeko kondena, eta klausula hori ez da loteslea auzitegiarentzat.
- d) Klausula horrek ez du batere lotzen auzitegia. Auzitegiak, berriz, PZL aplikatu, eta kostuak ordaintzeko egoki deritzon kondena ezarriko du; izan ere, alderdientzat, aginduzkoak dira kostuak ordaintzeko kondenari buruzko xedapenak, eta xedapenok ez daude haien borondatearen mende.

5.- Nuriak kontu korrante bat du Bernan (Suitza). Antonio abokatuari eskatzen dio egin beharreko kudeaketak egin ditzala dirua Espainiara ekartzeko, eta adierazten dio izeba batengandik jarauntsi duela etxe bat oraintsu, etxe hori saldu duela eta salmenta horretatik datorrela kontuko dirua. Zer egin behar du Antoniok?

- a) Abstenitu egin behar du gai horretaz arduratzeaz; izan ere, funtsak paradisu fiskal baten daude.
- b) Kontu handiz jokatu behar du, eta azterketa berezi bat egin; izan ere, funtsak paradisu fiskal batetik datoz.
- c) Horren berri eman behar dio Kapital Zuritze eta Arau Hauste Monetarioak Aurreikusteko Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari; izan ere, eragiketa susmagarria da.
- d) Enkargua onartu behar du, eta Nuriak adierazitakoaz fidatu.

6.- Datorren astean, Luisek ikustaldi bat izango du Bartzelonako Probintzia Auzitegian. Oso garrantzitsua da berarentzat; hori dela eta, nahi luke bere bulegokide Manuelek lagundu diezaiola judizio-ekitaldian.

- a) Manuelek lagundu ahal dio Luisi judizio-ekitaldian, zeren biak dira diharduten elkargokideak.
- b) Biak izanik diharduten elkargokideak, Manuelek lagundu ahal dio Luisi judizio-ekitaldian, betiere auzi korapilatsua bada edota 1.000 foliotik gorako bolumenekoa.
- c) Biak izanik diharduten elkargokideak, Manuelek lagundu ahal dio Luisi judizio-ekitaldian, betiere Manuelek hamar urte baino gehiago eman baditu elkargokide modura.
- d) Biak izanik diharduten elkargokideak, Manuelek lagundu ahal dio Luisi judizio-ekitaldian, betiere Manuelek egiaztatu ahal badu espezializatuta dagoela Luisi lagunduko dion gaian.

B. GAI ESPEZIFIKOAK

ZUZENBIDE ZIBILEKO ETA MERKATARITZA ZUZENBIDEKO ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1.- José inoren konturako langilea da, eta enplegurik gabe dago; erabaki du ordainketak ebazteko auzibidetik kanpoko akordio-espeditente bat hastea, hartzekodunekin akordio batera heldu, eta bere kaudimengabezia ebazteko. Hartzekodun hipotekarioak, ikusirik ez dituela ordaintzen maileguaren amortizazio-kuotak, Joséren ohiko etxebizitza eratzten duen higiezinaren hipoteka exekutatzeko prozedura hasten du lehen auzialdiko epaitegi batean. Zer ondorio sortzen du hipoteka exekutatzeko prozedura izapidetzeak?

- a) Bat ere ez. Exekuzioak normal segitzen du.
- b) Exekuzioak segitzen du José zordunaren hartzekodunen konkurtsoaz arduratzen den epaile eskudunaren aurrean.
- c) Prozedura hiru hilabeteko epean geldiarazten da.
- d) Prozedura behin betiko artxibatzen da.

2.- Aurreko kasuari jarraikiz, Josék ez du lortzen hartzekodunekin akordio batera heltzea; beraz, konkurtso-deklarazioa eskatzeko demanda aurkeztu behar du. Zein da epaitegi eskuduna?

- a) Josék egoitza duen probintziako merkataritza-arloko epaitegia.
- b) Josék egoitza duen probintziako hiriburuko lehen auzialdiko epaitegia.
- c) Lan-arloko epaitegia, Joséren egoitzari dagokiona.
- d) Lehen auzialdiko epaitegia, Joséren egoitzari dagokiona.

3.- Distribuciones Arganda, S.L. enpresak 10.000 euroko zor komertziala du, dokumentu bidez egiaztatua, Hierros Coslada, S.L.rekin, zeina hartzekodunen konkurtso-egoeran baitago. Konkurtsoko konkurtso-administratzaileak txostena eman du, Konkurtso Legeko 75. artikuluan aurreikusia; hala ere, hartzekodunen zerrendan ez da onartutzat azaltzen Distribuciones Argandak kreditu-eskubiderik duenik Hierros Coslada konkurtsopekoaren aurrean. Zer jarduketa hasi ahal du Distribuciones Argandak bere kreditu-eskubidea erreklamatzeko?

- a) Hierros Cosladari kopurua erreklamatzeko judizio arrunteko demanda aurkeztu behar du lehen auzialdiko epaitegiaren aurrean.
- b) Hartzekodunen zerrenda aurkaratzeko (inpugnatzeko) intzidentea aurkeztu behar du Hierros Coslada, S.L. zordunaren konkurtsoan.
- c) Judizio monitorioa egiteko hasierako eskaera aurkeztu behar du zordunaren egoitzari dagokion lehen auzialdiko epaitegian.
- d) Epaiketaz kanpoko titulua exekutatzeko prozedura hasi behar du lehen auzialdiko epaitegian.

4.- Transportes Atochak 5.000 euroko faktura bateko kopurua erreklamatzeko demanda jarri dio Suministros Eléctricos Castellana, S.L.ri; behin merkataritza-arloko epaitegian kopuru hori erreklamatzeko demanda jarrita Luisen kontra, oinarritzat hartuta ez duela sustatu Suministros Eléctricos Castellana, S.L. sozietatea desegitea, zeinaren administratzaile bakarra baita, eta aldi berean kausa legala egonik sozietate hori desegiteko, zelan eragiten du prozedura izapidean Suministros Eléctricos Castellana, S.L. sozietatearen hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko?

- a) Hura izapidetzea geldiarazten da harik eta konkurtso-prozedura amaitu arte.
- b) Prozedura artxibatzen da, eta baliogabe geratzen da jardundako guztia.
- c) Aurrera egiten du harik eta lehen auzialdian epai irmoa eman arte.
- d) Hartzekodunen konkurtsoari metatzen zaio, eta han segitzen da izapidetzen.

5.- Aurreko kasuari jarraikiz, behin Transportes Atochak 5.000 euroko zorraren kopurua erreklamatzeko demanda jarrita Suministros Eléctricos Castellana, S.L.ren kontra, zelan eragiten du prozedura izapidetzean Suministros Eléctricos Castellana, S.L.ren hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko?

- a) Hura izapidetzea geldiarazten da harik eta konkurtso-prozedura amaitu arte.
- b) Prozedura artxibatzen da, eta baliogabe geratzen da jardundako guztia.
- c) Aurrera egiten du harik eta lehen auzialdian epai irmoa eman arte.
- d) Hartzekodunen konkurtsoari metatzen zaio, eta han segitzen da izapidetzen.

6.- Erantzukizun mugatuko sozietate batean, sozietatearen urteko kontuak formulatzeko organo eskuduna da:

- a) Bazkideen batzar nagusia.
- b) Kontu-auditorea.
- c) Bazkide maioritarioa.
- d) Administrazio-organoa.

7.- Antonio Madrilgo auzotarra da, eta Supermercados del Barrio, S.L. ko bazkidea da, zeinak Sevillan baitu egoitza soziala. Antoniok jakin du ezen sozietate horretako bazkideen batzar nagusiak akordio bat hartu zuela ekitaldiko urteko kontuak onartzeko, eta akordio horretan erabaki zela hala erreserben emaitza aplikatzea eta ez banatzea dibidenduak, nola sozietatearen administratzaile bakar berria izendatzea. Kapital sozialaren % 20ko titularra da Antonio, eta, hala ere, ez zen pertsonalki deitua izan batzarrera joateko, nahiz eta estatutu sozialetan ezartzen den deialdia modu individualizatuan egingo zaiela bazkide guzti-guztiei. Zer egin dezake Antoniok batzar hori aurkaratzeko (inpugnatzeko)?

- a) Akordio sozialak aurkaratzeko judizio arrunteko demanda jarri behar du Merkataritza-arloko Madrilgo epaitegietan.
- b) Akordio sozialak aurkaratzeko ahozko judizioko demanda jarri behar du Merkataritza-arloko Sevillako epaitegietan.
- c) Akordio sozialak aurkaratzeko judizio arrunteko demanda aurkeztu behar du Merkataritza-arloko Sevillako epaitegian.
- d) Borondatezko jurisdikzioko espediente bat hasi behar du Merkataritza-arloko Sevillako epaitegietan, beste batzar nagusi baterako deialdi bat egin dadin aurreko batzar nagusiko xede berarekin.

8.- Erantzukizun mugatuko sozietate bateko administratzaile sozialek uste dute komeni dela estatutu sozialak aldatzea; horretarako, batzar nagusi berezi baterako deialdia egin behar dute, baina jakin nahi dute zer gehiago izan behar den, kasu honetan, balioa izan dezan estatutuak aldatzeko akordioak. Zein da gehiago hori?

- a) Kapital soziala osatzen duten partaidetzei dagozkien botoen erdia baino gehiagoren aldeko botoa behar da.
- b) Emandako boto baliodunen gehiengoa behar da, betiere boto horiek ordezkatzeko badituzte kapital soziala osatzen duten partaidetza sozialei dagozkien botoen herenak gutxienez.
- c) Bazkideen ahobatezko botoa.
- d) Bertaratutakoen kapitalaren gehiago absolutua edo ordezkaturakoarena, betiere kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar gainditzen badu.

9.- Espainiako marka erregistratu bateko titularrek jakin dute Valladolideko enpresa bat beren marka erabiltzen ari direla baimenik gabe. Erabaki dute judizio arrunteko demanda aurkeztea eta eskatzea deklaratu dadila marka-eskubidea hautsi dela eta kondena dadila demandatua jarduera zuzenbide-hauslea etetera eta sortutako kalte-galerak ordaintzera. Epaitegi hauetatik, zein arduratu behar da demandaz?

- a) Merkataritza-arloko Burgosko epaitegia, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren egoitza baita.
- b) Merkataritza-arloko Valladolideko Epaitegia.
- c) Merkataritza-arloko Alacanteko epaitegiak, Erkidego-markenak.
- d) Merkataritza-arloko Madrilgo epaitegiak, arlo horretako eskumena dutenak.

10.- Auzian komeniko balitz kautela-neurriak jartzeko eskabidea aurkeztea, kontuan izan behar dugu ezen, erakunde prozesal horri dagokionez, zuzena dela:

- a) Bakarrik aurkeztu daitezke demandarekin batera.
- b) Kautela eskaini behar da kautela-neurriak jasan behar dituenari sor dakizkiokeen kalte-galerei aurre egiteko.
- c) Alderdi demandatuari entzun gabe jartzen dira beti.
- d) Inoiz ezin da errekurtsorik jarri neurri horiek baiesten edo ezesten dituen ebazpen judizialaren kontra.

11.- Zor komertzial bat dela eta, Lehen Auzialdiko Málagako (demandatzailearen egoitza) epaitegi batek izapidetzeko onartu egin du judizio arrunteko demanda bat gure bezeroaren kontra. Gure bezeroak Madrilen du egoitza. Demanda helarazi da, eta hogeit eguneko epea eman da erantzuteko. Kontuan hartuta demanda Madrilen jarri behar zela, zer jardun judizial egin beharko litzateke?

- a) Demandari erantzun behar zaio, lurralde-eskumen gabezia alegatuz salbuespen prozesal modura.
- b) Berraztertze errekurtsua jarri behar da demanda izapidetzeko onartzeko autoaren kontra.
- c) Jarduketa-deuseztasuneko intzidentzia berezia aurkeztu behar da.
- d) Deklinatoria-demanda jarri behar da, erantzuteko ematen den hamar eguneko lehen epearen barruan, lurralde-eskumen faltagatik.

12.- Judizio arrunt bateko aurreko entzunaldiko ekitaldian proba proposatu eta gero, epaileak ez du proba hori onartu. Ebazpen horren aurrean, zer bide erabil daiteke aurkaratzeko (inpugnatzeko)?

- a) Berraztertze errekurtsua jar daiteke, idatziz, aurretiazko entzunaldia egin eta hurrengo bost egunen barruan.
- b) Berraztertze errekurtsua jar daiteke, ahoz, aurretiazko entzunaldiko ekitaldian bertan.
- c) Erabakia ezin da errekurritu.
- d) Erabakia aurkaratzeko modu bakarra da balizko apelazio errekurtsua jartzea ematen den erabakiaren aurka.

13.- Jabeen komunitate batean, bizilagun batek desgaitasun bat du, eta gurpildun aulkia behar du; arrapala jartzeko eskatzen du, arazorik ez izateko igogailura iristeko dauden eskailera-mailak igarotzeko. Zer gehiengo behar da obra hori onartzeko?

- a) Jabe guztiek aho batez onartu behar dute, elementu komunei eragiten baitie.
- b) Nahikoa da jabeen gehiengo batek onartzea, zeinak, aldi berean, partizipazio-kuoten gehiengoa ordeztu behar baitu.
- c) Nahitaezko obrak dira, eta ez da eskatzen jabeen batzarrak aurretik akordiorik hartzea.
- d) Bakarrik egin daitezke dagokion udalak hori egitea erabaki eta gero.

14.- Paula abokatuak kodemandatu bat defendatzen du. Prozedura arrunt baten aurreko entzunaldian, proba modura eskatzen du alderdi-galdeketa egiteko beste kodemandatu bati. Posible al da hori?

- a) Kodemandatu batek inoiz ezin du eskatu galdeketa egiteko beste kodemandatu bati.
- b) Koauzilari (kolitigante) batek beste koauzilari baten galdeketa eska dezake, baldin eta bien artean aurkakotza (oposizioa) edo interes-gatazka badago prozesuan.
- c) Bakarrik alderdi demandatzaileak eska dezake demandatuen galdeketa.
- d) Bakarrik eskatu ahal izango du kodemandatuaren galdeketa, baldin eta haren abokatuak ere eskatzen badu.

15.- Trafikoko talka baten ondorioz, gure bezeroaren ibilgailuak 2.000 euroko kalteak izan ditu. Istripua izan eta hiru hilabetera, eta ibilgailua konpondu eta gero, burofaxa bidali diogu kontrako ibilgailuaren aseguratzaileari, eta sortutako kalteak ordaintzeko eskatu, baina hark ez ditu ordaindu kalteak. Zer epe daukagu demanda aurkezteko?

- a) Trafiko-istripuko datatik gehienez ere urtebetera aurkeztu behar izango da demanda.
- b) Ibilgailua konpontzen den datatik gehienez ere urtebetera aurkeztu behar izango da demanda.
- c) Aseguratzaileari erreklamazioa jartzen zaion datatik gehienez ere bederatzita hilabetera aurkeztu behar izango da demanda.
- d) Aseguratzaileari erreklamazioa jartzen zaion datatik gehienez ere urtebetera aurkeztu behar izango da demanda.

16.- Josék, saltzaile modura, eta Albertok, erosle moduan, itundu dute Josék Gandian duen apartamentu bat salerostea. Apartamentuaren prezioa 100.000 eurokoa da, eta Albertok lau epetan ordainduko du: 25.000 euro hiruhileko. Salmentako eskritura publikoa sinatu eta hilabetera entregatuko dira giltzak. Zein unetan burutzen (perfekzionatzen) da salmenta, eta nahitaezko bilakatu, hala Josérentzat, nola Albertorentzat?

- a) Albertori apartamentuko giltzak entregatzen zaizkion unean.
- b) Salerosketako eskritura publikoa egilesten den unean.
- c) Apartamentuaren prezioaren zenbatekoaren lehen epea ordaintzen den unean.
- d) Josék Gandian duen apartamentuaren salerosketa itundu, eta Albertok ordaindu beharko duen prezioa -100.000 euro-finkatzen den unean.

17.- Ana J.k ezkontza banatzeko demanda jarri dio Fernando D.ri. Zein kasutan formulatu ahal du demandatuak errekonbentzioa?

- a) Edozein kasutan.
- b) Bakar-bakarrik ezkontzaren deuseztasuna eragin dezaketen arrazoietakoren batean oinarritzen denean.
- c) Ezkontide demandatuak deuseztasuna edo dibortzioa nahi duenean, edo behin betiko neurriak hartzea nahi duenean, baldin eta neurri horiek ez badira demandan bertan eskatu eta auzitegiak ez badu ofizioz pronuntziatu behar haiei buruz.
- d) Inoiz ez. Ezkontzari buruzko prozesuetan, ezin da formulatu errekonbentzioa.

18.- Zer kasutan azkentzen da dibortzio-akzioa?

- a) Esklusiboki ezkontideetako edozein hiltzen denean.
- b) Haiek adiskidetzen direnean. Adiskidetze horrek espresua izan beharko du, demanda jarri ondoren gertatzen bada.
- c) Ezkontideetatik edozein hiltzeagatik edo ezkontideak adiskidetzeagatik; adiskidetze horrek espresua izan behar du, demanda jarri ondoren gertatzen bada.
- d) Ezkontideetatik edozein hiltzeagatik edo ezkontideak adiskidetzeagatik; adiskidetze horrek espresua izan behar du eta epaitegiari jakinarazi behar zaio, epaia emanda badago.

19.- Ana J.k dibortzio-demanda jarri nahi dio bere senar Fernando G.ri. Senar-emazteek Ávilan zuten ohiko egoitza, harik eta, 2017ko martxoan, banatu ziren, eta senarra Sevillara joan zen bizitzera, eta Ana J. Gijónera, non lana aurkitu baitzuen eta bizitzera geratu baitzen. Zer epaitegik du dibortzio-akziorako eskumena?

- a) Lehen Auzialdiko Gijóngo Epaitegiak.
- b) Lehen Auzialdiko Ávilako Epaitegiak eta Gijóngoak. Demandatzaileak aukeratzen duenak.
- c) Lehen Auzialdiko Sevillako Epaitegiak.
- d) Lehen Auzialdiko Ávilako Epaitegiak eta Sevillakoak. Demandatzaileak aukeratzen duenak.

20.- Marisa eta Pablo Parisen ezkondu ziren, eta han ezarri zuten beren ohiko egoitza. Eztabaida baten ostean, Marisak alde egiten du bere jaioterrira, Espainiara, ume eta guzti, eta Madrilan geratzen da bizitzen, amaren etxean. Zer arau aplikatuko zenuke baloratzeko nazioarteko zer eskumen judizial duten Espainiako auzitegiek dibortzio-akzioa planteatzeko?

- a) Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 769. artikulua.
- b) Kontseiluaren 2003ko azaroaren 27ko 2201/2003 Erregelamendua (EE), ezkontza eta guraso-erantzukizunaren inguruko eskumenari, aitorpenari eta ebazpen judizialen betearazpenari buruzkoa, zeinaren bidez indargabetzen baita 1347/2000 Erregelamendua (EE).
- c) Banantze eta dibortzioaren arloko Frantziako legeria.
- d) 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialarena.

21.- Catalina eta Jorge ezkontideek elkarrekin adostutako dibortzioa lortzeko demanda aurkeztu dute, Ana María abokatuaren legelari-zuzendaritzapean; horrekin batera, etorkizuneko harremanei buruzko hitzarmen arauemaile sinatu bat ere aurkeztu dute. Epaileak epaia eman zuen, non hitzarmen arauemailean jasotako neurri guztiak onartu baitzituen. Epaia eman ostean, Jorge zure bulegora doa, zeren ulertzen du ez dela egokia bere seme-alaba adingabeen zaintza- eta jagoletza-erregimena, eta galdetzen du ea apelazio-errekurtsua jar daitekeen ala ez epaiaren kontra. Posible al da hori?

- a) Bai. Errekurtsua jartzeko epea, berriz, hogeit eguneko epe orokorra da, epaia jakinarazten denetik aurrerakoa.
- b) Bai. Errekurtsua jartzeko epea, berriz, hamar egunekoa da, epaia jakinarazten denetik aurrerakoa.
- c) Bai, errekurtsua jar daiteke, baina neurriak aldatzeko demanda jarri beharko du epaia eman zuen epaitegi beraren aurrean.
- d) Ez. Ezin da errekurtsua jarri; izan ere, Ministerio Fiskalak soilik errekurritu ahal izango du, adingabeen interesen alde, hitzarmen arauemailearen proposamen osoa onartzen duen epaia.

22.- Carmelok Cristinaren kontra sustatutako judizio arruntaren aurreko entzunaldian, epaitegiak epairako prest deklaritzen du epaiketa, aurretik epaiketa bera egin gabe. Adierazi zein den erantzun zuzen bakarra:

- a) Judizio arruntean, inoiz ezin da epairik eman, baldin eta aurretik epaiketa egiten ez bada. Beraz, alderdien abokatuek berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango dute erabaki horren kontra, eta errekurtsu hori ahoz ebatzi beharko du epaileak, aurretiazko entzunaldian bertan.
- b) Judizio arruntean, inoiz ezingo da epairik eman, baldin eta epaiketa egiten ez bada; erabaki hori ezin izango da aurretiazko entzunaldian errekurritu, hargatik eragotzi gabe arazoa erreproduzitzea epaia errekurritzen denean.
- c) Posible da, baldin eta onartzen den proba bakarra dokumentuena bada, eta haiek jada prozesura ekarri baina aurkaratu (inpugnatu) ez badira, edota aditu-txostenak aurkeztu badira eta ez alderdiek ezta auzitegiak ere ez badute eskatzen adituak judizioan presente egon daitezela txostena berresteko.
- d) Epaitegiak epaia eman dezake aurretik epaiketarik egin gabe, baldin eta epaitegiak egoki baderitzo; erabaki hori, berriz, ezin izango da errekurritu aurretiazko entzunaldian, hargatik eragotzi gabe arazoa erreproduzitzea epaia errekurritzen denean.

23.- Aurretiko entzunaldian, alderdi auzi-jartzaile modura agertzen zara zeure bezeroaren defentsan, baina ez da azaltzen alderdi demandatua. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Zuzenean ematen da demandaren baiespen-epaia.
- b) Largespen-autoa ematen da, eta alderdi auzi-jartzaileak berrir aurkeztu beharko du demanda.
- c) Aurretiazko entzunaldia egiten da alderdi auzi-jartzailearekin, bidezkoa denari dagokionez.
- d) Entzunaldia eteten da, eta bigarren eta azken aldiz egiten zaio deialdia alderdi demandatuari, eta beste data bat jartzen da.

Foru-zuzenbide zibilei buruzko galderak

24.- Pedrok Nafarroako auzotasun zibila du jaio zenez geroztik. Testamentua egiletsi gabe hil da, Vigon, han bizi baitzen, duela bost urte ezkondu zenez geroztik. Jaraunspeneko ondasunetan, Cádizeko apartamentu bat baino ez da azaltzen. Pedrok seme bat dauka aurreko ezkontza batekoa, eta semea Bilbon bizi da. Adierazi zer zuzenbide aplikatu behar zaion Pedroren *mortis causa* oinordetzari:

- a) Nafarroako Zuzenbidea.
- b) Euskal Herriko Zuzenbidea.
- c) Kode Zibila.
- d) Galiziako Zuzenbidea.

25.- Aukeratu galdera hautatu duzun foru-zuzenbidearen arabera:

A.- Zuzenbide Zibil Erkidea:

25.- Juanek eta Mariak zuzenbide erkideko auzotasun zibila dute; ezkondu egin ziren, baina ez zuten ezkontza-itunik egin.

Adierazi zen den ezkontzaren araubide ekonomikoa:

- a) Ondasunen irabazpidea.
- b) Ondasunen banantzea.
- c) Konkisten ezkontza-sozietatea
- d) Ondasunen foru-komunikazioa.

B.- Aragoiko Zuzenbide Zibila:

25.- Juanek eta Mariak Aragoiko auzotasun zibila dute; ezkondu egin ziren, baina ez zuten ezkontza-itunik egin. Adierazi zen den ezkontzaren araubide ekonomikoa:

- a) Ondasunen irabazpidea.
- b) Ondasunen banantzea.
- c) Konkisten ezkontza-sozietatea
- d) Ezkontza-partzuergoa.

C.- Balearretako Zuzenbide Zibila:

25.- Juanek eta Mariak Balear Uharteetako auzotasun zibila dute; ezkondu egin ziren, baina ez zuten ezkontza-itunik egin. Adierazi zen den ezkontzaren araubide ekonomikoa:

- a) Ondasunen irabazpidea.
- b) Ondasunen banantzea.
- c) Ondasunen foru-komunikazioa.
- d) Ezkontza-partzuergoa.

D.- Kataluniako Zuzenbide Zibila:

25.- Juanek eta Mariak Kataluniako auzotasun zibila dute; ezkondu egin ziren, baina ez zuten ezkontza-itunik egin. Adierazi zen den ezkontzaren araubide ekonomikoa:

- a) Ondasunen irabazpidea.
- b) Ondasunen banantzea.
- c) Konkisten ezkontza-sozietatea
- d) Ondasunen foru-komunikazioa.

E.- Galiziako Zuzenbide Zibila:

25.- Juanek eta Mariak Galiziako auzotasun zibila dute; ezkondu egin ziren, baina ez zuten ezkontza-itunik egin. Adierazi zen den ezkontzaren araubide ekonomikoa:

- a) Ondasunen irabazpidea.
- b) Ondasunen banantzea.
- c) Konkisten ezkontza-sozietatea
- d) Ondasunen foru-komunikazioa.

F.- Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Zibila (Bizkaia):

25.- Juanek eta Mariak Euskal Autonomia Erkidegoko (Bizkaia) auzotasun zibila dute; ezkondu egin ziren, baina ez zuten ezkontza-itunik egin. Adierazi zen den ezkontzaren araubide ekonomikoa:

- a) Ondasunen banantzea.
- b) Konkisten ezkontza-sozietatea.
- c) Ondasunen foru-komunikazioa.
- d) Ezkontza-partzuergoa.

G.- Nafarroako Zuzenbide Zibila:

25.- Juanek eta Mariak Nafarroako auzotasun zibila dute; ezkondu egin ziren, baina ez zuten ezkontza-itunik egin. Adierazi zen den ezkontzaren araubide ekonomikoa:

- a) Ondasunen irabazpidea.
- b) Ondasunen banantzea.
- c) Konkisten ezkontza-sozietatea.
- d) Ondasunen foru-komunikazioa.

Erreserbako galderak

1.- Zure bezero Ignacio eta haren anaia Javier bulegora etorri zaizkizu, izeba ezkongabe bat dutelako, seme-alabarik ez duena eta alzheimer larria duena. Emakume horren gurasoak aspaldi hil ziren; haren neba bakarra, berriz, zure bezeroen aita zen, eta hura ere hil egin zen, bost seme-alaba utzita. Izebaren ezgaitze judiziala sustatu nahi dute. Aholku hauetatik, zein da zuzena?

- a) Edozein pertsonak dauka ahalmena haren ezgaiteta sustatzeko.
- b) Ezgaiteta sustatzeko, ustezko ezgaiaren ahaide gehienen akordioa behar da; beraz, haren ilobak bost izanik, zure bezeroek beste anaia edo arreba baten adostasuna behar dute ezgaiteta sustatu ahal izateko.
- c) Ustezko ezgaiarengandik elikagaiak jasotzen dituzten ahaideek bakarrik susta dezakete hura ezgaitzea.
- d) Ilobak ez daude gaituta ezgaitze-deklarazioa sustatzeko, baina Ministerio Fiskalera jo ahal izango dute Ministerio Fiskalak susta dezan izebaren ezgaiteta.

2.- Zure bezero Mariak bere alde du kondena-epai bat (kopurua erreklamatzeko prozedura batean), eta epai hori irmoa da. Zuri galdetu dizu ea zer epetan exekuta daitekeen epaia. Zein erantzun da zuzena?

- a) Ezin da despatxatu exekuzioa harik eta epaia irmo bilakatu eta hurrengo hogeit hamar eguneko epea igaro arte.
- b) Edozein unetan despatxa daiteke, baldin eta ez bada igaro hiru urteko epea.
- c) Ezin da despatxatu exekuzioa harik eta epaia irmo bilakatzen denetik bi hilabete igaro arte.
- d) Epaia jakinarazi, eta hurrengo egunean despatxa daiteke exekuzioa.

ZIGOR ARLOKO ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1.- Evelia ustekabeen harrapatu dute El Corte Inglés saltokitik irteteen, dendako zenbait arropa poltsa batean ezkutatuta. Ordaindu gabe eraman nahi zituen arropa horien PSP 580 €-koa da. Egitate hori mota honetakoa da:

- a) Delitu arina, jendeari irekitako establezimendu komertzial batean izan delako.
- b) Astuntasun txikiagoko delitua, PSP kontuan hartuta.
- c) Delitu arina edo astuntasun txikiagokoa, produktuaren peritu-tasazioaren arabera.
- d) Delitu arina, saiakuntza gisa gertatu delako.

2.- Leonila bere ama Suintila zaintzen ari da. Amak 90 urte ditu eta alzheimer gaitza dauka, maila aurreratuan. Alabak egoera hori aprobeztatu du, amak giltzaz itxitako kutxa batean gordetzen dituen bitxiak eskuratzeko. Horretarako, lehenengo eta behin, kaxoi batean gordeta zeukan giltza kendu dio amari. Leonilaren jokaera zigorgarria izan al daiteke?

- a) Bai, gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta delako, eta erantzukizun kriminala salbuesteko arrazoi batek ere ez du egoera hori bere barnean hartzen.
- b) Ez, haren ama delako eta indarkeriarik edo larderiarik gabe egindako ondare-delitua delako.
- c) Bai; haren ama izan arren, emakumearen kalteberatasunaz aprobeztatu delako.
- d) Ez, gertakari horiek ez dutelako arau-hauste penalik eratzten, hargatik eragotzi gabe dagokion erantzukizun zibila.

3.- Francesc sopikun (konplize) gisa akusatu dute, jendeari irekitako establezimendu batean indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurreta-delitu bategatik. Zein da ezar dakiokkeen zigorraren tarte legala?

- a) Urtebete eta bi urte bitarteko espetxealdia.
- b) Urtebete eta bederatzita hilabeteko espetxealditik hasi, eta hiru urte, bost hilabete eta hogeita bederatzita eguneko espetxealdira bitartean.
- c) Bost hilabete eta zazpi eguneko espetxealditik hasi, eta hamar hilabete eta hamalau eguneko espetxealdira bitartean.
- d) Bost hilabete eta zazpi eguneko espetxealditik hasi, eta hiru urte, bost hilabete eta hogeita bederatzita eguneko espetxealdira bitartean.

4.- Paulina Majadahondako Motor Juan SLU Toyota kontzesionarioko langilea da. Bezero batekin establezimendu horretan salgai dagoen turismoetako bat probatzeko asmoz, industrialdean barrena gidatu du autoa, eta istripua izan du, semaforo batean garaiz ez frenatzeagatik. Ondorioz, oinezko bat harrapatu du, eta pertsona horrek lesioak izan ditu. Udaltzainak heldu direnean, mozkor-sintomak antzeman dizkiote; beraz, alkoholemia-testa egin diote. Emaizta positiboa izan da, eta atestatua ireki diote, alkoholaren eraginpean gidatzearen eta zuhurtziagabekeriak lesioen delituagatik. Juan Lópezek, istripua izandako ibilgailuaren jabe den Motor Juan, SLUren akziodun bakarrak, galdetu du ea bere sozietateak erantzukizun zibilen bat ote duen istripuan eragindako lesioengatik, kontuan hartuta ibilgailua behar bezala aseguratuta zegoela eta berak ez zekiela langilea mozkortuta zegoenik:

- a) Ez; izan ere, erantzukizun bakarra gidatzen ari zen langilearena da, alkoholaren eraginpean gidatu delako eta lesioak delitu baten ondorio direlako.
- b) Ez; izan ere, erantzukizun zibila gidariarena eta ibilgailuaren aseguru-konpainiarena izango da soilik.
- c) Bai, langilearekin batera modu solidarioan; izan ere, erantzukizun zibila beti da solidarioa, eta konpainia, kasu honetan, ez da alkohol-kontsumoaren ondorioz gertatu diren kalteen kargu egiten.
- d) Bai, langilearekiko modu subsidiarioan, hargatik eragotzi gabe aseguru-konpainiaren erantzukizun zuzena.

5.- Alacanteko Adingabeen Epaitegiak bi urteko erregimen itxiko barneratze-neurria betetzera kondenatu zuen Alejandro. Neurri hori betetzen urtebete daramanean, 18 urte egin ditu. Zer gertatzen da betetzeke duen barneratze-urtearekin?

- a) Neurria termino berberetan betetzen jarraituko du, epaian proposatu ziren helburuak lortu arte.
- b) Adingabeen epaileak entzun egingo du Ministerio Fiskalak, adingabearen letraduak, Lantalde Teknikoak eta Babeserako Erakunde Publikoak esan beharrekoa, eta, auto motibatu bidez, neurria espetxe batean betetzeko agindua eman ahal izango du.
- c) Neurria aldatuko da, gizartearentzako lanak egin ahal izateko.
- d) Adin-nagusitasunera heltzen den unean bertan, erantzukizun penala iraungi egingo da.

6.- Eduvigis bere bizilagun Edelmira hiltzen saiatu da, kafean artsenikoa botata. Larri egon arren, Edelmira bizirik irauten du; beraz, erailketaren delitu-saiakuntzagatik akusatzen dute Eduvigis. Adierazi zein den egitateak epaitzeko prozedura eta horretarako eskumena duen organoa:

- a) Epaimahaiaren Legearen prozedura eta Probintzia Auzitegia, magistratu bat arituta epaile tekniko gisa.
- b) Epaimahaiaren Legearen prozedura eta Probintzia Auzitegia, gutxienez hiru magistratu arituta epaile tekniko gisa.
- c) Prozedura arrunta eta Probintzia Auzitegia, kide anitzeko auzitegi gisa.
- d) Prozedura laburtua eta Zigor Arloko Epaitegia.

7.- Zenbait pertsonari egindako maula dela-eta aurretiazko eginbideen fasean dagoen prozedura batean, Benjamínek eta Coralek akusazio partikular gisa pertsonatu nahi dute, kaltetu egin dituztela ulertzen dutelako. Zein betekizun formal egin behar dute, pertsonatzeko?

- a) Kereila aurkeztu behar dute Prozedura Kriminalaren Legeko 277. artikulua betekizunekin, eta fidantza eskaini behar dute.
- b) Kereila aurkeztu behar dute Prozedura Kriminalaren Legeko 277. artikulua betekizunekin, fidantza eskaintzeko beharrik gabe.
- c) Letraduak lagunduta eta prokuradoreak ordezkaturik agertu behar dute, akusazio gisa, kereilarik gabe eta fidantza eman edo eskaintzeko beharrik gabe.
- d) Letraduak lagunduta agertu behar dute soilik; izan ere, prokuradorea ahozko judizioa irekitzen den unetik aurrera baino ez da behar, kereila aurkezteko eta fidantza eskaintzeko beharrik gabe.

8.- Prozedura Kriminalaren Legearen 302. artikulua bat etorritik, instrukzioko epaileak jarduketan sekretua deklaratu du alderdientzat, hilabeterako. Ebazpen berean, zure defendatua den Hermenegildoren espetxealdirako agerraldia erabaki du; izan ere, une horretan, Hermenegildo poliziak dauka atxilotuta. Epaitegira jotzean, sumarioarako irispidea eskatu duzu, jakiteko zein diren zure defendatuaren espetxealdi posiblearen arrazoiak; baina gai horren ardura duen funtzionarioak erabat ukatu dizu espedienterako irispidea, adostutako sekretuari jarraituz. Zuzena al da hori?

- a) Bai; zeren, sumarioaren sekretua ebatzi denez, alderdietako batek ere ezin baitu sumarioaren edukirako irispiderik izan, Ministerio Fiskalak izan ezik.
- b) Ez, zeren askatasunaz gabetutako pertsonaren letraduak beti baitauka sumarioarako irispidea, sekretua ebatzi den arren.
- c) Bai; izan ere, Ministerio Fiskalak espetxeko entzunaldi-ekitaldian azalduko du zein diren atxilotuaren aurka dauden zioak, eta azken horrek dagokiona alegatu ahal izango du.
- d) Ez; izan ere, inputatuaren abokatuak beti izango du irispidea ikertuaren edo auzipetuaren askatasun gabezia aurkaratzeko (inpugnatzeko) funtsezkoak diren jarduketan elementuetarako.

9.- Condomios de Arriba herriko Guardia Zibilaren postuak atestatu bat igorri du Ramiroren aurka, alkoholaren eraginpeko gidatze-delituagatik. Ramirok positibo eman zuen prebentziozko alkoholemia-kontrol batean, 0,80 mg/l-ko alkoholtasarekin arnastutako airean, sintomatologia etilikorik gabe. Epaitegiak aurretiazko eginbideak ireki ditu, eta deklaratzeko hitzordua jarri dio Ramirori. Ramiro garraiolari profesionala da, eta zeuri galdetu dizu zer egin daitekeen ez diezaioten ezarri gidatzeko baimena denbora luzez kentzeak dakarren zigorra. Adierazi zein den erantzunik egokiena:

- a) Ramirok ahozko judizioa egiteko arriskua hartu beharko luke; izan ere, sintomatologiarik gabeko prebentzio-kontrola izan zenez, ezin dute zigortu alkoholaren eraginpean gidatzearen delituagatik.
- b) Ramirok zurekin batera agertu beharko luke instrukzio-epailearen aurrean eta egitateak aitortu, eginbideak judizio azkarrerako premiazko eginbide bihurtzeko, akusazioak eskatutako zigorra heren batez murrizteko adostasun posible baten ondorioetarako.
- c) Zigor Arloko Epaitegiko ahozko judizioko ekitaldian, Ramiro konformatu beharko litzateke zuk Ministerio Fiskalarekin aurretiaz negoziatu dezakezun zigorrarekin; izan ere, prozedura aurretiazko eginbide gisa ireki zen, eta ezin da adostasun pribilegiaturik lortu.
- d) Azkar epaitzeko modukoa izan daitekeen delitua denez eta instrukzioan zigor murriztua lortzeko aukera dagoenez, zuk, Ramiroren letradu gisa, eskatu beharko duzu jarduketak deuseztatzeko eta atestatua egiteko unera ekartzeko atzera, Guardia Zibilak behar bezala izapidetu ditzan premiazko eginbideak, eta, horrela, heren batez murrizteko modukoa izan daitekeen zigorra adostu ahal izateko fiskalarekin.

10.- Santiagok Eugenia emazte ohiaren aurkako akzio penala egikaritzeko asmoa dauka, banaketa-prozesuan hark egindako irainezko edo kalumniazko adierazpen batzuegatik, Santiagok bien alaba adingabeari ustez egindako sexu-abusuen inguruan. Zein betekizun bete behar dira akzio penala egikaritzeko?

- a) Santiagok kereila formulatu beharko du, partikularren aurkako kalumnia edo irainengatik.
- b) Santiagok salaketa formulatu beharko du soilik, irainak edo kalumniak prozesu judizial batean gertatu direlako eta delitu-egitateak inputatu direlako.
- c) Santiagok kereila formulatu beharko du, kereilapekoarekin adiskidetze-ekitaldia egin izanaren edo horretan ondoriorik gabe saiatu izanaren egiaztatzea aurkeztuta.
- d) Santiagok kereila formulatu beharko du, kereilapekoarekin adiskidetze-ekitaldia egin izanaren edo horretan ondoriorik gabe saiatu izanaren egiaztatzea aurkeztuta; eta, gainera, irainak edo kalumniak inferitu zireneko ezkontza-epailearen baimena aurkeztu beharko du.

11.- José atxilotu egin dute bortxaketa-kasu batengatik, eta, kasu horren aurrean, polizia judizialak erabaki du baimen informatua eskatzea hari, ahoko frodis bidezko laginak hartzeko eta, modu horretan, haren DNA kontrastatu ahal izateko delituaren biktimarengan aurkitutako hondarrek; eta hori, aipatutako lagina derrigorrez hartzeko baimen judiziala eskatu aurretik. Beharrezkoa al da abokatu bertan egotea, prozesu horren uneren batean?

- a) Ez; izan ere, analisi zientifikorako borondatez emandako lagin bat da, eta prozedura horrek ez du atxilotuaren osotasun fisikoa urratzen.
- b) Bai, bertan egon behar du jakinarazpenaren unean eta adostasuna hartzen zaion unean, aholkua emateko aipatutako adostasuna ematearen edo uko egitearen ondorioei buruz.
- c) Ez; izan ere, proba haren onerako izan daiteke, erruduntasuna baztertuta geratzen bada; gainera, ezezko kasuan, epaileak erabaki dezake.
- d) Bai, baina soilik lagina hartzeko unean; izan ere, orduan ukitzen da haren osotasun fisikoa eta intimitate pertsonala.

12.-. Kepa atxiloketa-zentro batean dago atxilotuta, eta zeu izendatu zaitu abokatu. Hara heldu zarenean, eskatu duzu entrega diezazutela atestatu osoaren edo idatzita dagoenaren kopia, edo, gutxienez, atestaturako irispide osoa, egozten zaizkion egitateak baloratu ahal izateko. Kopia edo irispide osoa uka diezazukete?

- a) Ez; izan ere, atxilotuaren defentsan jarduten duzun unetik bertatik, eta auzia sekretutzat deklaraturata egon ezean, auziaren inguruko dokumentu polizial eta judizial guztietarako irispidea izan dezakezu.
- b) Bai; izan ere, fase horretan, soilik duzu eskubide baldintzagabea atxiloketa inpugnatzeko beharrezkoak diren atestatuko funtsezko elementuetara iristeko.
- c) Ez; kopia ukatu diezazukete, baina ez jarduketa polizialeterako irispide osoa.
- d) Bai; izan ere, soilik izango duzu irispidea atestatura edo atestatuaren ataletara, auzia instrukzio-epaitegian jasotzen denean.

13.- Jaime, akusatua, behin-behineko espetxealdian dago 2015eko apirilaren 5etik, eta 2017ko apirilaren 5ean luzatu diote espetxealdia. 2019ko martxoaren 15ean, Probintzia Auzitegiak hamar urteko espetxealdi-zigorra jarri dio, bortxaketa-delitu baten egilea izateagatik. Martxoaren 20an kasazio-errekurtsoa iragartzean, haren abokatuak berehala eskatzeko eskaera egin du, espetxealdiaren gehienezko epea laster beteko delako. Salak nahitaez baietsi beharko du eskaera hori?

- a) Bai, prebentziozko espetxeratzearen gehienezko epea lau urtekoa baita.
- b) Ez, baldin eta neurriak beharrezkoa izaten jarraitzen badu espetxealdiaren helburuak lortzeko, baina ezarritako espetxealdiaren hamar urteko epearekin.
- c) Bai; zeren, soilik kasazioaren zain dagoen epaia eman ostean, ezin baita prebentziozko espetxeratzea mantendu.
- d) Ez, salak 2020ko apirilaren 5era arte luza baitezake espetxealdia.

14.- Indarkeriaz edo larderiez egindako lapurreta-delitu batengatik bideratutako prozedura laburtuan, zu izendatu zaituzte ahozko judizioko ekitaldian akusatua defendatzeko, haren lehen defentsak uko egin ondoren. Jarduketak aztertzean, ohartu zara ezen, beharbada, oinarrizko eskubideak urratu egin zirela, taldeko identifikazio-saioa letraduaren laguntzarik gabe egin zelako; alabaina, gertakari hori ez zen aurretiaz salatu. Baliatu al daiteke deuseztasun posible hori judizioko ekitaldian? Zein unetan?

- a) Ez, ezin da; izan ere, auzia instruitzen ari zen bitartean argudiatu behar izan zen hori, prozedura laburtura aldatzeko autoa eman aurretik, taldeko beste identifikazio-saio batekin zuzendu ahal izateko aipatutako deuseztasuna.
- b) Bai, probaren deuseztasuna planteatu daiteke aurretiazko arazoan izapidetan.
- c) Ez; izan ere, defentsaren idazkian eskatu behar izan zen deuseztasuna; beraz, eskaera garaiz kanpokoa da.
- d) Bai, baina ez behin betiko ondorioen fasea baino lehen; izan ere, behin-behinekoetan, ez zen probaren deuseztasuna planteatu.

15.- Ofiziozko txandako abokatu izendatu zaituzte Xerardo izeneko bezero batentzat, haren defentsak uko egin baitu. Izendapenarekin, auzia helarazi zaizu (prozedura laburtua, gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta-delituagatik), defentsako idazkia formulatu dezazun. Une horretan, Xerardok jakinarazi dizu drogazalea dela, eta drogazalea zela egitateak gertatu ziren unean ere; halaber, esan dizu delitua egin zuela droga eskuratzeko behar zuen dirua lortzeko, eta datu hori eman gabea zela ordura arte. Tratamendu-zentro batean artatu dutela erakusten duten zenbait dokumentu aurkeztu dizkizu. Drogazaleatasunaren inguruko aditu-froga proposatu al daiteke defentsako idazkian?

- a) Bai; aurretiazko froga gisa, mediku forentsearen txostena eska daiteke, akusatuaren drogazaleatasun posiblea baloratzeko.
- b) Ez; izan ere, Xerardok une horretan emandako dokumentu bidezko froga baino ezin da aurkeztu, instrukzioa dagoeneko amaitu da eta.
- c) Bai, baina soilik aditu-froga pribatua, instrukzioko izapidea prekluitu egin delako eta, beraz, mediku forentseak esku hartzeko izapidea ere prekluituta dagoelako.
- d) Ez; izan ere, instrukzioko egitateak zehaztuta geratu ziren prozedura laburtura aldatzeko autoan, eta hor ez dago jasota Xerardoren drogazaleatasuna.

16.- Segoviako Probintzia Auzitegiak epaia eman du 2/2019 prozedura arruntean, eta 7 urteko espetxealdi-zigorra ezarri dio zure bezeroari, droga-delitu batengatik. Zein errekurtso arrunt jar daiteke epai horren aurka?

- a) Babes-errekurtsoa Konstituzio Auzitegian.
- b) Kasazio-errekurtsoa Auzitegi Gorenean.
- c) Apelazio-errekurtsoa, Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiko arlo zibileko eta zigor-arloko salan.
- d) Ezin da errekurtso arruntik jarri epai horren aurka

17.- Zigor Kodeko 147. artikuluko lesio-delitu bat dela-eta, honako zigor hau ezarri diote Santiagori, 2019ko urtarrilaren 15ean izandako gertakariengatik: bi urteko espetxealdia eta 3.000 euroko kalte-ordaina ematea Javierri. 2018ko irailaren 5ean, Santiago familia abandonatu izanaren delituaren egile gisa kondenatu zuten. Posible al da Santiagori ezarritako bi urteko zigorra bertan behera uztea?

- a) Bai, beti, zigorra ez baita bi urtetik gorakoa.
- b) Ez; izan ere, Santiagok ez du lehenengoz egin delitu. Hala ere, zigorraren orde, isuna edo gizartearentzako lanak eskatu ahal izango ditu, kitatzeko daukan erantzukizun zibila ordaintzen badu.
- c) Bai; izan ere, aurrekari penala eragin duen delitua ez da esanguratsua etorkizuneko delituak egiteko probabilitatea baloratzeko; betiere, erantzukizun zibila kitatzeko konpromisoa hartzen badu, bere gaitasun ekonomikoaren arabera.
- d) Ez; izan ere, ez zuen erantzukizun zibila kitatu epaia eman aurretik.

18.- Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta-delituagatik, Maria Pauri hiru urteko espetxealdi-zigorra ezarri diote adostasun-epaia emanda, eta ez dago jasota erantzukizun kriminala aldatzen duen inguruabarrik. Aldez aurretik, beste hiru alditan ere kondenatu zuten gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta-delituengatik. Zigorra betetzen hasi aurretik, Maria Pauk jakinarazten dizu, bere letradua zaren aldetik, droga toxikoekiko mendekotasunagatik egin zituela egitateak, eta dokumentazioa aurkezten dizu gaur egun eta iraganean izan duen droga-mendekotasuna egiaztatzeko, eta, halaber, egiaztatzeko une honetan Gizakia Helburu erakundearen zentro batean sartuta dagoela, droga-mendekotasunaren aurkako tratamenduan. Maria Pauk ba al du aukeraren bat zigorraren betearazpena bertan behera utz diezaioten?

- a) Bai.
- b) Ez, ezarritako zigorrak ez duelako horretarako aukerarik ematen, bi urteko espetxealditik gorakoa da eta.
- c) Ez, ohiko erruduna delako, hiru aurrekari penal baititu lapurrettagatik.
- d) Ez, epaiak ez duelako drogazalatasunaren egoera jasotzen.

19.- Dolozko homizidio-delituagatik zigortzen duen epaian, Fernandori anomalia psikikoaren inguruabar salbuesle osoa aitortu zitzaion, eta 5 urteko espetxe-zigorra ezarri zitzaion, bai eta askatasunaz gabetzeko segurtasun-neurri bat ere; zehazki, zentro psikiatriko batean sartzea, gehienez ere hamar urtez. Fernando urte eta erdiz egon zen preso, behin-behinean. Epaia irmoa dela, Fernando zentro psikiatriko batean sartu zen eta handik 4 urtera irten da, auzitegiak neurria behin betiko kentzea erabaki duenean. Zer gertatzen da espetxe-zigorrarekin?

- a) Fernandok soilik urtebete egin beharko du espetxean; izan ere, zentro psikiatrikoan igarotako laurak hartuko zaizkio kontuan, baina ez behin-behineko espetxealdia.
- b) Fernandok hiru urte eta erdiko espetxealdia bete beharko du; izan ere, behin-behineko espetxealdiaren urte eta erdia hartuko zaio kontuan, baina ez zentro psikiatrikoan igarotako denbora.
- c) Fernandok betetzeke dauka hiru urte eta sei hilabeteko espetxealdia, baina, segurtasun-neurriaren ondorioak arriskuan jartzen badira, epaileak edo auzitegiak bertan behera utz dezakete zigorraren betearazpena, edo zaintzapeko askatasun-neurriren bat aplikatu dezakete.
- d) Fernandok ez du ezarritako espetxe-zigorra bete behar, behin-behineko espetxealdia eta askatasunaz gabetzeko segurtasun-neurria hartuko baitzaizkio kontuan.

20.- Luis Carlosek, "Forrajes Luis, S.A." entitatearen administratzaile bakarrak, aipatutako erakundearen ustezko zenbait bezeroren ordainagiriak aurkeztu zituen Banco de Ourense banku-erakundearen, deskonturako. Jasotako kopuruak merkataritza-entitatearen kontuetan sartu ziren, ordaintzeke zituen zorrak ordaintzeko. Banco de Ourense-k kopuru horien ordainketa erreklamatu zuenean, zordun gisa agertzen ziren pertsonak uko egin zioten ordaintzeari, "Forrajes Luis" enpresari dirurik zor ez ziotela frogatuta. Aipatutako enpresari kopuru horiek itzultzeko eskaera egin ziotenean, Banco de Ourense-ren arduradunak ohartu ziren "Forrajes Luis, S.A." kaudimengabezia-egoeran zegoela duela zenbait hilabetetatik, jarduerarik gabe eta bere erantzukizun finantzarioei aurre egiteko ondasunik gabe. Hori dela-eta, Banco de Ourense-ren arduradunek erabaki zuten kereila jartzea Luis Carlosen eta Forrajes Luis, S.A. enpresaren aurka, maula delituagatik. Alabaina, kereila aurkeztu baino lehen, Luis Carlos hil egin zen, "Forrajes Luis" enpresako langileak gertakarietan inplikaturik egon gabe. Posible al da kereila soilik Forrajes Luis enpresaren kontra jartzea?

- a) Bai, pertsona juridikoaren erantzukizuna independentea delako egitateak gauzatu dituzten pertsona fisikoenetatik.
- b) Ez; izan ere, soilik eskatu daiteke pertsona juridikoaren erantzukizun penala, aldi berean egitateen erantzulea den pertsona fisikoarena ere eskatzen denean.
- c) Bai, baina soilik delitutik eratorritako erantzukizun zibilagatik.
- d) Ez; izan ere, kasu honetan, pertsona juridikoa ezin da maula delituaren erantzulea izan, eta erantzukizun zibila ezin da eskatu egitatearen erantzule penalik egon ezean.

21.- Polizia Nazionalaren Pertsonen aurkako Delituen Unitatea zenbait delitu ikertzen ari da: ondarearen aurkako delituak dira eta indarkeriaz gertatu dira azken egunotan, Madrildik gertuko herri batean. Ikerketen ondorioz, ibilgailu susmagarri bat aurkitu dute, eta, ikerketarekin segitu ahal izateko, jarraipenerako eta lokalizatorako gailu edo bitarteko tekniko bat (jarraipen-baliza bat) instalatu eta erabil dezakete. Beharrezkoa al da baimen judizialen bat?

- a) Ez da baimen judizialik behar, aurrez edo ondoren, baldin eta edozein delitu-mota egin dela erakusten duten zantzu sendoak badaude.
- b) Ez da baimen judizialik behar, aurrez edo ondoren, baldin eta oso delitu larria egin izanaren susmoak badaude.
- c) Premiazko arrazoiak badaude eta poliziaren ikerketa ezerezean gera ez dadin, ez da beharko aurretiazko baimen judizialik, baina bai beharko da ondorengo berrespen judiziala.
- d) Beti behar da aurretiazko baimen judiziala.

22.- Juan espetxean dago, eta hasierako gradu-sailkapena eman diote. Zenbat denborarik behin berrikusiko da hasierako gradu-sailkapen hori?

- a) 6 hilabeterik behin, gehienez ere.
- b) 3 hilabeterik behin, gehienez ere.
- c) Urtero, gehienez ere.
- d) Hilero, gehienez ere.

23.- Polizia Nazionalak ofizio bat igorri dio Madrilgo 8. Instrukzio Epaitegiari, eta baimena eskatu du telefono-operadore batek emandako erabiltzaile-zenbakitik Antoniok dauzkan telefono bidezko komunikazioak atzemateko. Zein kasutan eman dezake baimena instrukzio-egileak, telefono bidezko komunikazioak eta, hala badagokio, komunikazio telematikoak atzemateko?

- a) Ikerketaren xedea edozein delitu denean, baldin eta delitu horren inguruko kriminaltasun-zantzu nahikoak badaude eta, era berean, ikertuak bertan parte hartu izanaren zantzu nahikoak badaude.
- b) Ikerketaren xedea edozein delitu denean, baldin eta delitu horren inguruko kriminaltasun-zantzu handiak badaude eta hirugarrenentzat arrisku-egoera objektiboa badago.
- c) Ikerketaren xedea dolozko edozein delitu denean, baldin eta delitu horrek dakarren zigorra gutxienez hiru urteko espetxealdiko gehienekoa bada.
- d) Ikerketaren xedea genero indarkeriarekin edota etxeko indarkeriarekin erlazionatutako edozein delitu denean.

24.- Maitek Marioren aurkako salaketa aurkeztu du poliziaren egoitzan, egitezko tratu txarren ustezko delitu batengatik. Prozedura epaitegian izapidetu da premiazko eginbide gisa, eta Ministerio Fiskalak Marioren aurkako akusazio-idazkia formulatu eta aurkeztu du. Maiteren abokatuak, akusazio partikularra egikaritzen ari denak, ez du ahoz formulatu bere akusazio-idazkia, eta idatziz egiteko epea eman diezaioten eskatu du. Zenbatekoa izango da epaitegiak emango dion epea? Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Gutxienez, bi egunekoa.
- b) Gehienez, bi egunekoa.
- c) Gehienez, bost egunekoa.
- d) Bi eta bost egun artekoa.

25.- M^a Angelesek babes-agindurako eskaera egin du, eta, horren inguruko ebazpena eman denean, haren abokatuak eskatutako neurri penal eta zibil guztiak hartu dira. M^a Angelesek bere letraduari galdetu dio ea, une horretatik aurrera, izapide gehigarriren bat egin behar ote den, neurri zibilek indarrean jarraitu dezaten. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) Demanda aurkeztu beharko du, soilik nahi baldin badu dagoeneko hartuta dagoen neurri zibilen bat aldatu dadin.
- b) Ez du inolako izapide gehigarririk egin behar; izan ere, neurri zibilek indarrean jarraituko dute, neurri horiek hartu zireneko prozedura penala amaitu arte.
- c) 30 eguneko epean, demanda jarri behar du neurriak ebatzi zituen Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegian bertan; izan ere, bestela, indarraldia galduko dute.
- d) 30 eguneko epean, demanda jarri behar du M^a Angelesen bizitokiari dagokion barruti judizialeko lehen auzialdiko epaitegian; izan ere, bestela, indarraldia galduko dute.

Erreserbako galderak

1- Bogdanek albaniar herritartasuna du, eta ez du gaztelaniaz hitz egiten, ez hizkuntza hori ulertzen. Duela urtebete, Barajasko aireportuan atxilotu zuten, substantzia estupefaziante ugariz betetako maleta bat sartzen saiatu zelako. Une hartan, behin-behinean espetxeratzeko erabakia hartu zen, eta erabaki hori jasotzen zuen autoa eman zitzaion, albanierara itzulita. Datorren hilabeterako ezarri den ahozko judizioaren zain, albanierara itzulitako zein beste idazki eman behar izan zaio nahitaez?

- a) Prozedura laburtura aldatzeko autoa.
- b) Mediku forentsearen txostena.
- c) Akusazio-idazkia.
- d) Aurretiazko eginbideak hastea erabakitzen duen autoa.

2.- Evak adinez nagusia den Adrián semea salatu du komisarian, tratu txarrak eman ohi dizkiolako; eta babes-agindua hartzeko eskaera egin du. Hurrengo egunean, instrukzio-epaitegian deklaratu du, salaketa berretsi du, eta eskatutako kautelazko neurriak eman zaizkio. Judizioa urte eta erdi geroago egingo da, eta Evak, hainbeste denbora igarota, ez du semearen aurka deklaratu nahi. Evak Juani, bere abokatuari, galdetu dio zer egin dezakeen. Adierazi zein den erantzun zuzena:

- a) PKLren 416. artikuluko lekopen edo dispentsan anpara daiteke.
- b) Deklaratu eta gezurra esan dezake, Adrián semeari kalterik ez egiteko; izan ere, PKLk horretarako baimena ematen dio, haren ama izateagatik.
- c) Deklaratu egin behar du, instrukzio-fasean hala egin zuelako.
- d) Ezin da PKLren 416. artikuluko lekopen edo dispentsan anparatu, bere garaian hartutako kautelazko neurriek indarrean jarraitzen baitute.

ADMINISTRAZIO-ALORRAREN ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ALORRAREN ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1.- Administrazio-bideari amaiera ematen dieten administrazio-egintzen aurka errekurtsu hau jarri ahal izango da:

- a) Aukerako berraztertze-errekurtsua, egintzak eman zituen organoari berari, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, berriakuspen-errekurtsu bereziaren bidez.
- b) Berriakuspen-errekurtsu berezia, zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, egintzak eman dituen organoaren hierarkian goragoko mailako organoari errekurtsu hori jarri dela iragarri ondoren.
- c) Nahitaezko berraztertze-errekurtsua, egintzak eman dituen organoaren hierarkian goragoko mailako organoari, eta, ezetsiko balitz, administrazioarekiko auzi-errekurtsua, dagokion prozeduraren bidez.
- d) Errekurtsu-jartzaileak aukeratzen duena: berraztertze-errekurtsua egintzak eman dituen organoari, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, dagokion prozeduraren bidez.

2.- Presuntziozko egintza ezeseleen aurkako berraztertze-errekurtsuak:

- a) Hamabost eguneko epean jarriko dira, presuntziozko egintza gertatutzat ematen den egunaren biharamunetik aurrera.
- b) Hilabeteko epean jarriko dira, presuntziozko egintza gertatutzat ematen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
- c) Noiznahi jarri ahal izango dira, presuntziozko egintza gertatutzat ematen den egunaren biharamunetik aurrera.
- d) Hilabeteko epean jarriko dira, eskumena duen organoak administrazio-isiltasunaren ziurtagiria eman eta biharamunetik aurrera.

3.- Legez kontrako erregelamendua zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeaz gain:

- a) Administrazio-bidean zuzenean aurkaratu ahal izango da berraztertze-errekurtsuaren bidez.
- b) Administrazio-bidean zuzenean aurkaratu ahal izango da erregelamendua kaltegarri deklaratu ondoren.
- c) Erregelamendua aurkaratu ahal izango da erregelamendua betearazteko edozein egintza aurkaratzen denean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bidean, erregelamendua Zuzenbidearen aurkakoa delako.
- d) Konstituzio Auzitegian zuzeneko legezkontrakotasun-arazoa planteatuz aurkaratu daiteke.

4.- Administrazio-xedapenak bakarrarentzat indargabetu ezinak direlako printzipioarekin bat etorri (*legem patere quam fecisti ere deitua*):

- a) Administrazio-ebazpen partikularrek ezin dute urratu xedapen orokor batean ezarritakoa, nahiz eta xedapen orokorra eman zutenaren maila bereko edo hierarkian goragoko organo batenak izan.
- b) Administrazio-xedapen orokorrek ezin dituzte urratu goragoko mailako xedapen orokor baten manuak.
- c) Administrazio-xedapen orokorrek ezingo dituzte urratu Europar Batasuneko erregelamendu baten manuak.
- d) Administrazio-xedapen orokorrek ezingo dituzte arautu legez arautu beharreko gaiak edo Europar Batasunak arautu beharrekoak.

5.- Interesdunaren aldeko administrazio-egintza, Estatuaren Administrazio Orokorrak edo autonomia-erkidegoek emandakoa, interes publikoarentzat kaltegarri deklaratu ahal izango da:

- a) Ordenamendu juridikoa urratzeagatik deuseztagarria denean, egintza eman zenetik lau urte igaro baino lehen administrazio bakoitzean gaian eskumena duen organoak hartuko duen erabakiaren bidez.
- b) Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak errekurtsuaz arduratzean hala erabakitzen duenean.
- c) Estatu Kontseiluak deklaratu du kaltegarri bere nahitaezko irizpena ematean.
- d) Administrazio publiko bakoitzeko organo eskudunak deklaratu du kaltegarri, noiznahi, egintza erabat deuseza denean.

6.- Noiz dago "aginte-desbideratzea" administrazio-egintzan?

- a) Edukia gauzatu ezinekoa denean.
- b) Administrazio-ahalak baliatzen direnean ordenamendu juridikoa ezarritakoez bestelako helburuetarako.
- c) Organo nabarmen eskumengabe batek eman duenean, edo egintza emateko legez ezarritako prozedura guztiz alde batera utziz eman bada.
- d) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badie.

7.- Noiz preskribatzen du Administrazioaren ondare-erantzukizuna erreklamatzeko eskubideak?

- a) Urtebeteren buruan, kalte-ordaina ekarri duen egitatea edo egintza gertatu denetik edota kaltearen ondorioak agertzen direnetik aurrera. Pertsonen kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da zenbatzen epea.
- b) Bost urteren buruan, kalte-ordaina ekarri duen egitatea edo egintza eskumena duen organoak deklaratu duenetik edota kaltearen ondorioak agertzen direnetik aurrera. Pertsonen kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da zenbatzen epea.
- c) Urtebeteren buruan, kalte-ordaina ekarri duen egitatea edo egintza gertatu denetik edota kaltearen ondorioak agertzen direnetik aurrera. Pertsonen kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, kaltea sortu zen egunetik hasiko da zenbatzen epea.
- d) Urtebeteren buruan, kalte-ordaina ekarri duen egitatea edo egintza gertatu denetik edota kaltearen ondorioak agertzen direnetik aurrera. Kalte materialen kasuan, sortutako kalteen ebaluazioa egiten denetik hasiko da epea kontatzen.

8.- Administrazioak oker aritmetikoa egingo balu administratuari onura dakarkion administrazio-egintza batean, nola zuzendu ahal izango luke?

- a) Zuzentzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa da egintza eman zenetik aurrera, ofizioz edo interesdunak eskaturik.
- b) Zuzenketa egiteko, beharrezkoa da egintzak ukitutako interesdunaren adostasuna jasotzea, egintza eman zenetik lau urteren barruan.
- c) Zuzenketa interesdunek eskaturik edo ofizioz egin daiteke, noiznahi.
- d) Zuzenketa egiteko, aldez aurretik Estatu Kontseiluaren aldeko irizpena lortu behar da.

9.- Administrazioak errebokatu nahi badu interesdunarentzat kalterako den edo kargak ezartzen dituen egintza:

- a) Edozein unetan egin dezake, baldin eta interes publikoaren aurkakoa ez bada, interesdunari jakinarazita.
- b) Edozein unetan egin dezake, preskripzio epea bete ez den bitartean, Estatu Kontseiluak aldeko irizpena eman ondoren.
- c) Noiznahi egin dezake, preskripzio epea bete ez den bitartean, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekapean edo salbuespena.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

10.- Ondare-erantzukizuna dagoenean, zer kalte ordaindu daitezke, kalte horiek Konstituzioaren kontrako deklaratu den lege-mailako arau bat edo Europar Batasuneko Zuzenbidearen kontrako deklaratu den arau bat aplikatzearen ondoriozkoak badira?

- a) Lege-mailako arau bat Konstituzioaren aurkakoa dela edo arau bat Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkakoa dela deklaratzeko duen epaia argitaratu baino lehenagoko bost urteko epean sortutako kalteak, non eta epaiak besterik xedatzen ez duen.
- b) Lege-mailako arau bat Konstituzioaren aurkakoa dela edo arau bat Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkakoa dela deklaratzeko duen epaia argitaratu baino lehenagoko lau urteko epean sortutako kalteak.
- c) Lege-mailako arau bat Konstituzioaren aurkakoa dela edo arau bat Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkakoa dela deklaratzeko duen epaia eman baino lehenagoko bost urteko epean sortutako kalteak.
- d) Lege-mailako arau bat Konstituzioaren aurkakoa dela edo arau bat Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkakoa dela deklaratzeko duen epaia eman baino lehenagoko hamar urteko epean sortutako kalteak, salbu eta lehenago preskribatu badute.

11.- Administrazio publikoek ofizioz hasi ahal izango dute ondare-erantzukizuneko prozedura kasu hauetan:

- a) Prozedura hasten duen organoa lurralde-mailakoa denean.
- b) Interesdunak aldez aurretik eskabidea egin duenean.
- c) Estatu Kontseiluaren irizpen batean horrela deklaratu denean.
- d) Interesdun izan litezkeen errekamaziorako eskubideak preskribatu ez duenean.

12.- Administrazio-bidea amaitzen ez duen administrazio-egintza espresuaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango du:

- a) Hilabeteko epean, eta ebazpen errekurritua betetzen den ikuskatu behar duen organoaren aurrean jarriko da.
- b) Hamabost eguneko epean, dagokion araudi espezifikoarekin bat etorritik administrazio-isiltasunaren ondorioak sortzen direnetik kontatzen hasita. Egintza eman zuen organo beraren aurrean jarriko da nahitaez.
- c) Hilabeteko epean, datatik datara zenbatuta, egintza jakinarazi den egunaren biharamunetik aurrera. Egintza eman zuen organoaren edo ebazteko eskumena duen organoaren aurrean jarriko da errekurtsioa.
- d) Hilabeteko epean, eman zen egunetik kontatzen hasita. Egintza eman zuen organoaren hierarkian goragoko mailakoaren aurrean jarriko da.

13.- Gora jotzeko errekurtsioa ondare-errekamazio baten administrazio-isiltasun bidezko presuntziozko ezestearen aurka jarri denean:

- a) Errekurtsioaren ebazpena baieslea izango da nahitaez, baldin eta jarri zenetik hiru hileko epearen barruan eman ez bada.
- b) Errekurtsioaren ebazpena baieslea izango da nahitaez, baldin eta jarri zenetik hiru hileko epearen barruan jakinarazi ez bada.
- c) Errekurtsioaren ebazpena baieslea edo ezleslea izan ahalko da, ematen den unean ematen dela ere.
- d) Errekurtsioaren ebazpena ezleslea dela ulertuko da beti, ematean administrazio-isiltasuna gertatu bada ere.

14.- Administrazio publiko baten jardueraren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango du:

- a) Edozein herritarrek, herri-akzioa baliatuz, legeak espresuki aurreikusitako kasuetan.
- b) Ministerio Fiskalak, legeak hala dioen prozesuetan esku hartzeko.
- c) Sexu-jazarpenaren edo sexuagatiko jazarpenaren kasuetan, jazarpena jasan duen pertsonak baino ez du legitimazioa izango, eta ez sindikatuek eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna defendatzeko legez eraturitako elkarteek, beren afiliatuei eta elkartekideei dagokienez, hurrenez hurren.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15.- Administrazioarekiko auzien prozesu batean, ordezkaritza honako honi eman ahal izango zaio:

- a) Auzitegien prokuradore bati, beti.
- b) Auzitegien prokuradore bati, salbu eta interesdunak bere kabuz agertu nahiago badu.
- c) Abokatu bati edo auzitegien prokuradore bati (interesdunak aukeratzen duena), demanda jurisdikzio horretako epaitegi batean jartzen denean.
- d) Jarduteko gaitasuna daukan pertsona fisiko bati edo pertsona juridiko bati, baldin eta hori egitea estatutuetan ezarrita badago.

16.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa abiarazteko idazkiarekin batera, agiri batzuk aurkeztu beharko dira, besteak beste:

- a) Aplikatzekoak diren arau edo estatutuen arabera pertsona juridikoek akzioak baliatzeko eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatzeke agiria.
- b) Auzitara agertzen denaren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.
- c) Errekurrizten den xedapen edo egintza espresuaren kopia edo helarazpena, edo egintza jasotzen duen espedientearen edo xedapena argitaratu den aldizkari ofizialaren aipamena.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

17.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da aurretik administrazio-errekurtsoa jarri beharrik izan gabe:

- a) Administrazio-egintza irmo eta behin betikoaren kontra.
- b) Izapide-egintza administratiboaren kontra, defentsa-gabezia sortzen badu.
- c) Administrazio publiko batek emandako administrazio-egintzaren kontra, errekurtso-jartzailea beste administrazio publiko bat denean.
- d) Administrazio-egintza baten kontra, egintza horren hartzaileak hainbat pertsona direnean.

18.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren munta zehazteko, kontuan hartuko da:

- a) Demandatzaile bat baino gehiago denean, haietako bakoitzak aurkezturiko uziaren balio ekonomikoa, eta ez guztien batura.
- b) Erreklamatzten denaren eta errekurtsoa eragin duen egintzaren muntaren arteko aldea, baldin eta administrazioak partez onartu baditu, administrazio-bidean, demandatzailearen uziak.
- c) Demandatzaileak egintza deuseztatzea baino eskatzen ez duenean, haren eduki ekonomikoari begiratuko zaio; horretarako, zor nagusia hartuko da kontuan, eta ez errekurguak, kostuak edo beste zeinahi erantzukizun mota, non eta haietakoren bat zor nagusia baino handiagoa ez den.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

19.- Epaitegi edo auzitegiak ez badu administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartzen jurisdikziorik edo eskumenik ezagatik:

- a) Demandatzaileak beste demanda bat aurkeztu beharko du beti eskumenduntzat jotzen duen organoaren aurrean.
- b) Jurisdikziorik ezagatik ez bada onartzen, demandatzaileak hilabeteko epea dauka jurisdikzio-ordena honetan pertsonatzeko: ez onartzeko autoak eskumenduntzat jotako jurisdikzio-ordenan.
- c) Eskumenik ezagatik ez bada onartzen, ez onartzeko autoak eskumenduntzat jotako organoaren aurrean aurkeztu beharko du demandatzaileak bere demanda.
- d) Ezin da errekurtsorik jarri ez onartzeko autoaren aurka, hargatik eragotzi gabe demandatzaileak beste demanda bat jartzea.

20.- Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko epai baten efektuak hedatzea eskatu ahal izango da:

- a) Epaiak jabari publikoaren edo hirigintzakoaren arloko errekurtsoa ebazten duenean.
- b) Epaiak tributu-gaien edo administrazio publikoen zerbitzuko pertsonalari dagozkion gaien gaineko errekurtsoa ebazten duenean.
- c) Epaiak nahitaezko desjabetze edo jabego berezien gaineko errekurtsoa ebazten duenean.
- d) Epaiak Estatuaren obra publikoen eta kontratazio administratiboaren arloko errekurtsoa ebazten duenean.

21.- Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek emandako epaien exekuzioa:

- a) Exekutatu beharreko epaia eman duen epaitegi edo auzitegiari dagokio.
- b) Lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean epaia eman duen epaitegi edo auzitegiari dagokio.
- c) Egintza errekurriritua eman duen Administrazioarekiko organoari dagokio.
- d) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurreko gora jotzeko errekurtsoa edo berraztertze-errekurtsoa ebatzi duen Administrazioarekiko organoari dagokio.

22.- Administrazioa kopuru likido bat ordaintzera kondenatzen denean:

- a) Dagokion aurrekontu-kreditutik ordaindu dadila erabakiko du, kreditu nahikoa balego.
- b) Kreditu nahikoa ez balego, eskatu beharko da aurrekontuan aldaketa egitea , zeina epaia jakinarazi denetik urtebeteren barruan burutua izango baita.
- c) Dagokion aurrekontu-kreditutik ordaindu dadila erabakiko du, zeina handitzeko modukotzat joko baita.
- d) Ogasun publikoari nahasmendu larria ekarriko balio, epaia betetzeari uko egin ahal izango dio, eta auzitegiari jakinarazi hori.

23.- Doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoa jarri ahal izango da:

- a) Apelazio-errekurtsoak ebazten dituzten Auzitegi Nazionalaren eta justizia-auzitegi nagusien epaien aurka.
- b) Auzitegi Nazionalak eta justizia-auzitegi nagusiek lehen auzialdian emandako epaien kontra.
- c) Auzitegi Nazionalaren eta justizia-auzitegi nagusien eta Auzitegi Gorenaren epaien aurka, administrazio publikoetako langileen gaineko gaiak ebazten dituztenean.
- d) Auzitegi Nazionalaren eta justizia-auzitegi nagusien eta Auzitegi Gorenaren epaien aurka, pronuntziamendu desberdinekin antzeko gaiak ebazten dituztenean.

24.- Legearen intereseko kasazio-errekurtsoak jarri ahal izango dituzte:

- a) Auzian interes legitimoa duten sindikatu nagusiek.
- b) Ministerio Fiskalak.
- c) Auzian interes legitimoa duten administrazio publiko instituzionalek.
- d) Auzian interes legitimoa duten erabiltzaile- eta kontsumitzaile-elkarteek.

25.- Kostuak ordaintzeko kondena jarriko zaio:

- a) Lehen auzialdian eta auzialdi bakarrean, bere uzi guztiak errefusatu zaizkion alderdiari, beti.
- b) Lehen auzialdian eta auzialdi bakarrean, bere uzi guztiak errefusatu zaizkion alderdiari, salbu eta auzitegiak hautematen badu kasuak egiteko edo zuzenbideko zalantza handiak zituela.
- c) Lehen auzialdian eta auzialdi bakarrean, Ministerio Fiskalari, bere uzi guztiak errefusatu zaizkionean.
- d) Lehen auzialdian eta auzialdi bakarrean, bere akzioari fede gaizto edo ausarkeria nabarmenez eutsi dion alderdiari.

Erreserbako galderak

1.- Administrazioarekiko auzien prozeduran, kautela-neurriak:

- a) Eskatu ahal izango dira demandan bakarrik berebat bidez.
- b) Aldatu edo errebotatu ahal izango dira, prozesu nagusian egindako aurrerapenak direla eta.
- c) Ukatu ahal izango dira, kalte larria ekar badieziaiekete interes orokorreari edo hirugarren baten interesei.
- d) Ezingo zaio eskatu berme edo kausioa kautela-neurria proposatzen duenari, baina eragindako kalte-galerei erantzungo die.

2.- Administrazioarekiko auzien prozeduran, apelazio-errekurtsoa bi efektuetan onartzen denean:

- a) Ezin izango da epaia behin-behinean exekutatzeko eskatu.
- b) Bidezko kautela-neurriak eskatu edo luzatu ahal izango dira.
- c) Itzultzeko efektua da apelazio-errekurtsoaren efektu inplizituetako bat.
- d) Auzialdiko epaian kondenatutako administrazioak bidegabe kobratutako zenbatekoak itzuli edo kontsignatu beharko ditu.

LAN-ARLOKO ESPEZIALITATE JURIDIKOA

1.-TRADER S.A. enpresak Carmen kontratatu du obra-kontratu baten bitartez. Hala ere, kontratua amaitzean, irazpen edo kaleratzeagatiko erreklamazioa aurkeztu du Carmenek, lege-iruzurreko kontratua dela uste baitu. Kontratazioan lege-iruzurra izan dela iritziz gero, zer ondorio izango luke horrek?

- Kontratu mugagabea dela joko da, aldi baterako kontratua lege-iruzurrean egin delako.
- Obra jakinerako kontratua denez, hau joko da: obraren iraunaldia izango duela kontratuak, lege-iruzurrean egin denez.
- Hau joko da: iraunaldia, nolahi ere, 3 urte izango dela, gehienez, eta 12 hilabete luzatu ahal izango dela hitzarmen sektorialaren bitartez, lege-iruzurrean egin baita kontratua.
- Nolahi ere, 5 urte izango da gehieneko iraunaldia: Hiru urte, aldi baterako kontratuen gehieneko iraunaldia hori delako, eta bi urte lege-iruzurra zigortzeko.

2.- Obra-kontratua amaitu zaionean, Manuel jaunak informazioa eskatu dizu, ea kalte-ordainik dagokion aldi baterako kontratua amaitzeagatik, iaz sinatu baitzuen, 2018an. Zuk, egiaztatu ondoren ez zaiola aplikatzen inongo aurreikuspen espezifikiko edo konbentzionalik, eta ez dela bitarteko kontratua, ez eta prestakuntzakoa ere, adierazi diozu ezen, Langileen Estatutuaren arabera, kalte-ordain hau dagokiola aldi baterako kontratua amaitzeagatik:

- Hamabi soldata-egun, zerbitzu-urte bakoitzeko.
- Hogei soldata-egun, zerbitzu-urte bakoitzeko.
- Hogeita hamahiru soldata-egun, zerbitzu-urte bakoitzeko.
- Ez dagokio kalte-ordainik.

3.- Rafael aldizkako langile finkoa da (*fijo discontinuo*), eta Kordobako izokitegi batean ematen ditu zerbitzuak. Urtero deitzen diote udako sasoi hasten denean, meteorologiaren arabera, eta hitzarmen kolektibo aplikagarrian ezarritako ordenan eta forman. Jakin duenez, enpresak beste lankide guztiei deitu die jada sasoi honetan, baina ez Rafaeli berari, txanda zegokion arren. Nola jokatu behar du Rafaelak deitu ez dioten honetan?

- Kopuru-prozeduraren bitartez erreklamatu behar du lan-arloko jurisdikzioan. Erreklamatzeko epea hasiko da deitu ez diotela jakin duenetik.
- Jurisdikzio penalean erreklamatu behar du, eta erreklamatzeko epea hasiko da deitu ez diotela jakin duenetik.
- Kaleratze- edo irazpen-prozeduraren bitartez erreklamatu behar du lan-arloko jurisdikzioan. Erreklamatzeko epea hasiko da deitu ez diotela jakin duenetik.
- Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusian erreklamatu behar du, kaleratze- edo irazpen-prozeduraren bitartez. Erreklamatzeko epea hasiko da deitu ez diotela jakin duenetik.

4.- Faustino eraikuntzako langilea da eta lan-osagarri bat (*complemento laboral*) jasotzen du arriskuagatik, bere lanpostuak altueran lan egitea eskatzen duelako. Enpresak beste lanpostu batera eraman du Faustino, eta lanpostu horrek ez du altuera-arriskurik. Horrenbestez, arrisku-osagarria ordaintzeari utzi dio enpresak.

- Enpresak inoiz ezin dio utzi lanpostuaren arrisku-osagarria ordaintzeari, finkagarria edo kontsolidagarria delako.
- Enpresak lanpostuaren arrisku-osagarria ordaintzeari utzi ahal dio, osagarri hori ez delako finkagarria edo kontsolidagarria, kontrako akordiorik ez badago.
- Lanpostuaren arrisku-osagarria ez da soldata, eta, beraz, enpresak nahi duenean utz diezaioke ordaintzeari.
- Osagarria ordaintzeari utz diezaioke enpresak, baldin eta enpresari lotzeagatiko osagarri batekin konpentsatzen badu.

5.- Xeniak gozotegi batean egiten du lan, eta bi hilabeteko soldata zor diote orain dela 7 hilabete. Kopuru-erreklamazio bat aurkeztu nahi du, kopuru horrengatik hain zuzen ere. Zer epe du erreklamazio judiziala egiteko?

- Kasu honetan, kopurua erreklamatzeko akzioak sei hilabetera preskribatuko du, akzioa gauzatu daitekeen egunetik kontatzen hasita.
- Kasu honetan, kopurua erreklamatzeko akzioak urtebetera preskribatuko du, akzioa gauzatu daitekeen egunetik kontatzen hasita.
- Kasu honetan, kopurua erreklamatzeko akzioak bi urtera preskribatuko du, akzioa gauzatu daitekeen egunetik kontatzen hasita.
- Soldatez ari garenez, ez dago eperik.

6.- Enpresa bereko hiru langilek enpresari erreklamatu nahi diote udako aparteko paga, enpresak ez baitzien ordaindu bere garaian. Zalantza dago ea demanda berean erreklamatu dezaketen batera, edo banan-banan erreklamatu behar ote duten.

- Auzi-jartzaile batek edo batzuek demandatu baten edo batzuen aurka dituzten akzioak metatu ahal izango dira, betiere akzio horien artean loturarik badago tituluagatik edo eskatzeko kausagatik.
- Auzi-jartzaile batek edo batzuek demandatu baten edo batzuen aurka dituzten akzioak inoiz ezin dira metatu, nahiz eta akzio horien artean loturarik egon tituluagatik edo eskatzeko kausagatik.
- Auzi-jartzaile batek edo batzuek demandatu baten edo batzuen aurka dituzten akzioak abiaraz daitezke, nahiz eta akzio horien artean loturarik ez egon tituluagatik edo eskatzeko kausagatik.
- Akzioak beti erreklamatu behar dira banaka, salbu eta gatazka kolektiboa direnean.

7.- Bankuko enbargo bat heldu zaio Borja zure bezeroari, ez dituelako ordaindu iazko Gabonetan eskatu zuen kontsumo-maileguaren kuotak. Kontuan hartuta Borjari bere lanegatik ordaintzen dioten guztia lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) dela, soldata horretatik zer ehuneko edo portzentaje atxiki diezaiokete enbargoari aurre egiteko?

- a) LGSaren % 50.
- b) Ezer ez lehenengo bostehun euroetatik, eta % 25 gainerakotik.
- c) Ezer ez, LGSaren kopurua enbargaezina da.
- d) LGSaren % 10.

8.- Josék sei urteko semea du, eta erabaki du denbora gehiago emango duela semea zaintzen eta hezten. Josék zure abokatu-bulegora jo du, eta hau galdetu dizu, ikusita bere hitzarmen kolektiboak ez duela ezer esaten gai horretaz: zer dio Langileen Estatutuak adingabeko baten legezko zaintzagarri lanaldi-murrizketari buruz?

- a) Hau dio legeak: legezko zaintza dela eta, hamabi urte baino gutxiagoko haur bat zaindu behar duen langileak lanaldi-murrizketarako eskubidea izango du, soldata proportzionalki gutxitu gabe. Gutxieneko murrizketa lanaldiaren zortzirena izango da, eta gehienekoa, berriz, lanaldiaren erdia.
- b) Hau dio legeak: legezko zaintza dela eta, hamabi urte baino gutxiagoko haur bat zaindu behar duen langileak lanaldi-murrizketarako eskubidea izango du. Gutxieneko murrizketa lanaldiaren hamarrena izango da, eta gehienekoa, berriz, lanaldiaren laurdena, eta soldata proportzionalki gutxituko da, murrizketaren arabera.
- c) Hau dio legeak: legezko zaintza dela eta, hamabost urte baino gutxiagoko haur bat zaindu behar duen langileak lanaldi-murrizketarako eskubidea izango du. Gutxieneko murrizketa lanaldiaren zortzirena izango da, eta gehienekoa, berriz, lanaldiaren erdia, eta soldata proportzionalki gutxituko da, murrizketaren arabera.
- d) Hau dio legeak: legezko zaintza dela eta, hamabi urte baino gutxiagoko haur bat zaindu behar duen langileak lanaldi-murrizketarako eskubidea izango du. Gutxieneko murrizketa lanaldiaren zortzirena izango da, eta gehienekoa, berriz, lanaldiaren erdia, eta soldata proportzionalki gutxituko da, murrizketaren arabera.

9.- Zure bezeroari funtzioak edo eginkizunak aldatu dizkiote, 15 urte eman eta gero hotel txiki baten zuzendari. Joan den astean harreragile edo errepezionista lanpostua bete dezala agindu diote, baina ez diote idatziz komunikatu. Lan-arloko epaitegian kontratuaren suntsiarazpena edo erresoluzioa eskatu delarik oinarri hartuta enpresaburuak ez duela kontratua bete, magistratuak deklaratu du enpresaren portaerak lan-baldintzen funtsezko aldaketa ekarri duela, eta Langileen Estatutuak 41. artikulua dioena errespetatu gabe egin dela, eta, gainera, kalte egin diola langilearen duintasunari. Zer kalte-ordain zor zaio zure bezeroari?

- a) 20 soldata-eguneko kalte-ordaina, zerbitzuan egindako urte bakoitzeko: gehienez ere bederatziz hilabete.
- b) 20 soldata-eguneko kalte-ordaina, zerbitzuan egindako urte bakoitzeko: gehienez ere hamabiz hilabete.
- c) Bidegabeko kaleratzeari dagokion kalte-ordaina.
- d) Kontratua azkentzea izango du, baina ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango.

10.- Teruelgo probintzian, ordezkari handieneko sindikatuak eta enpresaburuak elkarrekin akordio bat iritsi dute, eraikin eta lokalen garbiketaren hitzarmen kolektibo probintziala onartzeko. Hitzarmenak izaera estatutarioa edukiko du, ikusita sinatzaileek ordezkargarritasun handia dutela. Hitzarmenak indarra hartzen duenetik aurrera, hauei aplikatu behar zaie:

- a) Sinatu duten sindikatuak afiliatuta dauden langileei bakarrik.
- b) Akordioari uko egiten diotela beren-beregi adierazten ez duten langileei bakarrik.
- c) Automatikoki Teruelgo probintziako sektore horretako langile guztiei.
- d) Automatikoki Autonomia Erkidegoko sektore horretako langile guztiei.

11.- Zure bezeroa Canteras Piedrafría, S.A. sozietatearen jabea eta gerentea da, eta konbentzitu da egoki dela solaskide formal bat izatea langileen alderdian. Iritzi hori adierazi die langile batzuei, eta langileek erabaki dute ordezkari handieneko sindikatu batengana jotzea hauteskundeak sustatzeko. Kontuan hartuta enpresaren lan-zentro bakarrean 125 langile ari direla, guztira, eta ez dagoela hitzarmen-aurreikuspenik Langileen Estatutuak dioena aldatzen duenik, hau izango da langileen ordezkari-organismo unitarioa:

- a) langileen 3 ordezkari.
- b) 9 kideko enpresa-batzordea.
- c) langileen ordezkari 1.
- d) lantokien arteko batzorde bat.

12.- Negoziazio kolektibo neketsu eta luze baten ondoren, akordioa erdietsi dute batzordeak eta enpresak. Estatutuaren araberrako hitzarmena denez, hitzarmen estatutarioa alegia, honela formalizatu behar dute:

- a) Idatziz ala idatzi gabe, alderdien aukeran.
- b) Idatziz, bestela deuseza izango delako.
- c) Ez dute zertan formalizatu.
- d) Estatutuaren araberrako hitzarmen kolektiboak ez dira formalizatzen.

13.- Nagusiarekin eztabaida bat izan eta gero, kaleratu egin dute gure bezeroa. Guztiz zuzen jokatu ez duela onartu arren, gehiegizko zigor deritzo kaleratze edo irazpenari, eta zuk adierazi diozu erabakia hartu behar duela, hau da, irazpen edo kaleratzeagatiko akzioa jarri:

- a) Kaleratzea gertatu ondorengo hogeiei egunen barruan. Egun baliodunak izango dira.
- b) Kaleratzea gertatu denetik urtebete igaro baino lehen.
- c) Kaleratzea gertatu ondorengo hogeiei eguneko epea igaro eta gero. Egun baliodunak izango dira.
- d) Kaleratzea gertatu ondorengo hogeiei egunen barruan. Egun naturalak izango dira

14.- Arrakasta izan duzu kaleratzeagatiko demandan, eta bidegabekotzat jo dute kaleratzea. Epaiaren arabera, enpresak aukeran du langilea berriz hartzea ala kalte-ordaina pagatzea. Horretarako 5 eguneko epea igarota, ez duzu berririk izan, eta, epaitegian egiaztatu duzunez, enpresak ez du ez bata ez bestea egin. Horrek esan nahi du:

- a) Enpresari errekerimendua egin behar zaiola aukera egin dezan 48 ordu baino lehenago.
- b) Epea beste 5 egun luzatu behar dela.
- c) Langilea berriz hartu behar dutela ulertzen da.
- d) Kalte-ordaina pagatu behar dutela ulertzen da.

15.- Lan-arloko epaitegiak deklaratu duenez, bidegabeba da Xoela zure bezeroaren kaleratzea. Enpresaburuari eskubidea eman diote hauen artean aukeratzeko: kalte-ordaina ematea ala langilea berriz hartzea. Garaipena ez da erabatekoa izan, zuk kaleratzearen deuseztasuna eskatu duzulako. Horrenbestez, erregutze-errekurtsoa aurkeztea erabaki duzu. Errekurtso hori ebatzi bitartean, eta enpresak langilea berriz hartzea erabaki duenez:

- a) Jasotzen zuen lansari bera jasoko du langileak, eta lanean jarraituko du, salbu eta enpresaburuak nahiago badu ordainketa batere konpentsaziorik gabe egin.
- b) Langileak zerbitzuak ematen jarraituko du, salbu eta enpresak nahiago badu ordainketa % 75 pagatzea inongo konpentsaziorik gabe.
- c) Langileak ez du zerbitzurik eman beharrik izango inoiz, baina ordainketa bera jasotzen jarraituko du.
- d) Langileak zerbitzuak ematen jarraituko du, baina ez du inongo ordainketarik jasoko.

16.- Atera da azkenean zuen aldeko epai baieslea, orain 9 hilabete aurkeztu zenuen soldata-erreklamazioari buruzkoa. Enpresak errekurritu egin ditu kondena-pronuntziamentu guztiak. Justizia Auzitegi Nagusia urtebete baino gehiago luza daiteke, eta bezeroak galdetu dizu ea zerbait kobratu dezakeen auzitegiak ebatzi baino lehen. Zure erantzuna da:

- a) Ez da aurrerakin edo antiziporik egongo harik eta Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia irmo izan arte.
- b) Kondenan erabakitako guztia jasotzeko eskubidea du.
- c) Errekurritutako epaiaren konturako aurrerakina eska dezake; gehienez ere, epaian erabakitako zenbatekoaren % 75.
- d) Errekurritutako epaiaren konturako aurrerakina eska dezake; gehienez ere, epaian erabakitako zenbatekoaren % 50.

17.- Bolada oso onean zabilta, eta beste judizio bat irabazi duzu; oraingoan, Félix jaunaren bidegabeko kaleratzeari zegokiona. Enpresak langilea berriz hartzea erabaki du, baina gero ez dio utzi Félix jaunari lanera sartzen. Orduan zuk berrartze-egaren intzidentea abiarazi duzu. Intzidentearen ikustaldirako jarritako egunean, baina, despistatu egin zara, eta ez zara ekitaldira joan. Zure bezeroa ere ez da joan, eta enpresa baino ez da agertu. Zer ondorio du alderdi exekutatuak ez agertzeak?

- a) Hura gabe egingo da ekitaldia.
- b) Ekitaldia eten, eta beste zitazio bat egingo zaio.
- c) Eskaeran atzera egin duela joko da.
- d) Enpresari eskatuko zaio erabaki dezala.

18.- Rafaela andreari, herriko banku-bulegoko zuzendaria bera, kaleratze edo irazpen objektiboko gutuna eman diote. Bankuak itxi egingo du bulegoa, eta bai Rafaela andrea bai beste bi langile lanik gabe geratuko dira. Zure bezeroak eskatu dizu prozesua ahalik eta gehien azkartu dezazun, nahiz eta lan-harremanaren azkentzea 15 egunera gertatuko den, aurreabisuaren aldia eta gero. Zer esango diozu?

- a) Kaleratze edo irazpenaren kontrako akzioa jartzeko, nahitaez itxaron beharko duela lan-harremanaren azkentzeak ondorioak izan arte.
- b) Berehala jarri ahal izango duela kaleratze edo irazpenaren kontrako akzioa, aurreabisuaren aldia amaitu arte itxaron gabe.
- c) Ezin duela kaleratze edo irazpenaren kontrako akzioa baliatu, banku-bulegoa itxi dutelako.
- d) Kaleratze edo irazpen objektiboaren kontra kopurua erreklamatzeko akzioa baino ezin dela jarri, inoiz ez kaleratze edo irazpenarengatikoa.

19.- Xenevra telekomunikazio-ingeniaria da, eta NETSA bere enpresa demandatu behar du, ez diolako Gabonetako aparteko paga ordaindu. Xenevrak etxetik egiten du lan, baina enpresak Espainia osoan dituen lantokietara ere joaten da. Lan-arloko zein epaitegitan aurkeztu beharko duzu zure bezeroaren kopuru-demanda?

- a) Nahitaez, eta hor bakarrik, enpresa demandatuaren egoitzari dagokion epaitegian.
- b) Espainiako hiriburuan, nahitaez.
- c) Hauek izango dituzu aukeran: langilearen egoitzari dagokion epaitegia; kontratuari dagokiona, baldin eta demandatua hartan egonik hura zitatzerik badago, edo demandatuaren egoitzari dagokiona.
- d) Enpresak aukeratu ahal izango du zer epaitegiri dagokion demanda hartzeko eskumena.

20.- Amparo haurdunaldiko 6. hilabetean dago. Diziplinazko kaleratzea edo irazpena ezarri diote, errendimendu baxua dela eta. Kaleratzea aurkaratu edo inpugnatu du, eta kaleratzearen deuseztasuna eskatu. Zeintzuk dira kaleratzearen kalifikazio judizial posibleak?

- a) Bidezkoa, bidegabea edo deuseza.
- b) Bidegabea edo deuseza.
- c) Deuseza baino ez
- d) Bidezkoa edo deuseza.

21.- Ignacio eta Juan kaleratu egin dituzte borroka bat izan dutelako lan egiten duten bulegoan, SANTABAO S.A. enpresan. Kaleratzea aurkaratuta, ahozko judizioko ekitaldian daudela:

- a) Demanda berretsitakoan, berresten bada, enpresa demandatuari egokituko zaio lehenik bere jarrera agertzea, hala alegazioen fasean nola froga gauzatzean, eta orobat konklusioen fasean.
- b) Demanda berretsitakoan, berresten bada, enpresa demandatuari egokituko zaio bigarrenik bere jarrera agertzea, hala alegazioen fasean nola froga gauzatzean, eta orobat konklusioen fasean.
- c) Demanda berretsitakoan, berresten bada, magistratuari egokituko zaio erabakitzea zer alderdiri dagokion lehenik bere jarrera agertzea, hala alegazioen fasean nola froga gauzatzean, eta orobat konklusioen fasean.
- d) Demanda berretsitakoan, berresten bada, honen arabera izango da enpresa demandatuak demandatzailearen aurretik ala demandatzailearen ondoren agertzea bere jarrera, hala alegazioen fasean nola froga gauzatzean, eta orobat konklusioen fasean: enpresa demandatuak demandari ahoz erantzun dion ala ez.

22.- Hestebete-enpresa batek, egoitza Málaga badu ere, Espainia osoan ditu lantokiak. Enpresa horrek plantillaren erdiaren kaleratze kolektiboa egin du. Zehazki, Málaga, Bilbo eta Bartzelonako zentroei eragiten die kaleratzeak. Enpresa-batzordeak kaleratze hori aurkaratu nahi du. Zer organo judizialen aurrean planteatu beharko luke demanda?

- a) Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan-arloko Salan.
- b) Málaga Lan-arloko epaitegietan.
- c) Auzitegi Nazionalaren Lan-arloko Salan.
- d) Kaleratze kolektiboa denez, enpresa-batzordeak Málaga Lan-arloko Epaitegiaren aurrean aurkez dezake demanda, edo bestela, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan-arloko Salaren aurrean: bietako edozeinetan.

23.- Langile batek demanda jarri du, eta lan-ordutegiaren aldaketa aurkaratu du funtsezko aldatetarako prozedura bereziaren bitartez. Judizioaren ekitaldia egin ondoren, epaia eman dute: langilearen demanda ezetsi, eta aurkaratutako neurria baliozkotu edo konbalidatu dute, justifikatuta dagoela iritzita. Langileak epaia errekurritu nahi du, ez baitago ados. Epai horren aurka:

- a) Apelazio-errekurtsoa jar daiteke.
- b) Berraztertze-errekurtsoa jar daiteke.
- c) Erregutze-errekurtsoa jar daiteke.
- d) Ezin da errekurtsorik jarri.

24.- Langile batek kontsulta bat egin digu: lanera zihoala, auto-istripua izan du, eta medikuak gaixotasun arruntarengatiko baja eman dio, eta jakin nahi du ea hori zuzena den.

- a) Ez da zuzena; izan ere, trafiko-istripua lanera zihoala gertatu zaionez, laneko istripuarengatiko baja da.
- b) Zuzena da, oraindik lanean hasi gabe zegoelako.
- c) Bakarrik izango da lan-istripua baldin eta lantokitik 10 kilometrora edo hurbilago gertatu bada.
- d) Bakarrik izango da lan-istripua baldin eta lantokian sartuta badago jada, nahiz eta lanean hasi gabe egon.

25.- Zure bezeroari, Victoria andreari, alta medikoa eman dio Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN), aldi baterako ezintasuneko 365 egunak amaitu dira eta. Zer epe du bere desadostasuna administrazio-bidean aurkezteko?

- a) Ebazpenaren jakinarazpenaren ondorengo 4 egun naturaleko epea, gehienez ere.
- b) Ebazpenaren jakinarazpenaren ondorengo 30 egun naturaleko epea, gehienez ere.
- c) Ebazpenaren jakinarazpenaren ondorengo 30 egun balioduneko epea, gehienez ere.
- d) Ebazpenaren jakinarazpenaren ondorengo 20 egun balioduneko epea, gehienez ere.

Erreserbako galderak

1.- Joaquin jauna agertu zaizu bulegora: 30 urte daramatza harrobietan lan egiten, eta baditu mugapen funtzional batzuk. Dagozkion txosten medikoak eginda, ondorioa da Joaquin ezingo dela bere ohiko lanbidean aritu; bai, ordea, beste batzuetan. Baliaezintasun iraunkorraren zer maila erakusten du irizpen mediko horrek?

- a) Baliaezintasun iraunkor partziala.
- b) Baliaezintasun iraunkor osoa.
- c) Baliaezintasun iraunkor absolutua.
- d) Baliaezintasun iraunkorra Baliaezintasun handia.

2.- COMESANO.GAL enpresaren aholkulari juridikoa zara, eta jakin duzu Soldatak Bermatzeko Funtzak (FOGASA) enpresa horretako langileei ordaindu diela kobratu gabe zituzten azken bi hilekoak; izan ere, epai batek aitortu die zenbateko horiek jasotzeko eskubidea, eta COMESANO.GAL enpresaren kaudimengabezia-autoa ere badago. Zer dakarkio horrek bezero duzun enpresari?

- a) Enpresaren zorrak gutxitzea FOGASAK ordaindutako zenbatekoen neurrian.
- b) FOGASAK, ordaindu dituen zenbatekoei dagokienez, badu langileen posizioa subrogatzeko eskubidea.
- c) FOGASAK zorraren % 50 barkatzea zure enpresari.
- d) Bai langileek bai FOGASAK eskubidea izatea hileko horien zenbatekoa kobratzeko zure enpresari.